

EUSKARAREN ERABILERA INKLUSIBOA




eman ta zabal sazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



oman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Euskararen erabilera inklusiboa

Edizioa: UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza eta Pikara Magazine

Testuen egilea: June Fernández Casete

Testuen orrazketa: Danele Sarriugarte Mochales
eta UPV/EHUko Euskara Zerbitzua

Diseinua eta maketazioa: Señora Milton



Pikara

online magazine

Esker onak

Irene Arrarats, Make Irigoien, Joseba Ezeiza, Aitzole Araneta
eta Iñaki Mendizabal Elordi.



Edukiak CC-BY-SA (Creative Commons) baimenaren pean argitaratu dira:

Aitortu – EzKomertziala – PartekatuBerdin (by-nc-sa): Ezin da jatorrizko lanaren eta hartatik erator daitezkeen lanen merkataritza-erabilerarik egin. Lan eratorriak banatzeko, jatorrizko lana arautzen duena bezalako lizentzia behar da.

ÍNDICE

| | |
|---|----|
| 0 SARRERA | 4 |
| 1 GIZONKERA BATUA ALBORATZEKO BIDEAN | 8 |
| 1.1. EUSKARARI ETA SEXISMOARI BURUZKO HAUSNARKETAK, ERRONKAK ETA EGITASMOAK..... | 8 |
| 1.2. ANDROZENTRISMOAREN AZTARNAK..... | 13 |
| 1.3. HIZKERAREN ETA IRUDIEN ARTEKO HARREMANA..... | 17 |
| 2 KOMUNIKAZIO EZ-SEXISTAREN GAKOAK | 22 |
| 2.1. GENERO MARKARIK EZ: ABANTAILA DA, ALA ARAZOA?..... | 22 |
| 2.2. EUSKARAREN ERABILERA JATORRA ETA EZ-SEXISTA..... | 25 |
| 2.3. EMAKUMEEI ETA GIZONEI TRATAERA SIMETRIKOA EMATEKO GAKOAK..... | 36 |
| 2.4. IRUDIAK: ESTEREOTIPOAK ETA ASIMETRIAK..... | 38 |
| 3 SEXISMOTIK HARAGO: HIZKERA INKLUSIBOA | 49 |
| 3.1. GENERO BINARISMOA..... | 49 |
| 3.2. NOLA IZENDATU TRANS PERTSONAK?..... | 56 |
| 3.3. DENOK EZ GARA HETEROSEXUALAK..... | 58 |

| | |
|---|-----------|
| 3.4. HITZ BERRI ETA BEHARREZKO BAT: KAPAZITISMOA | 64 |
| 3.5. ARRAZAKERIA HIZKERAN ERE ISLATZEN DA. | 67 |
| 3.6. ANIZTASUNA IRUDIETAN | 69 |
| | |
| 4 BIBLIOGRAFIA | 75 |

0

SARRERA

SARRERA

“Hizkuntza herri batek edota pertsona batek bere burua ezagutu eta ulertzeko zein gainerakoak ezagutarazteko sortzen duen bitartekoa da”

Bilgune Feminista¹

1 Hezkidetz
Gida,
Hezkidetzan
Esku Hartzen
Ikastaroan
aipatua.

Gida hau irakurtzea erabaki duzu; beraz, seguru asko argi izango duzu hizkuntzak paper garrantzitsua betetzen duela gizarte baten baloreen eta ideologiaren transmisioan. “Izena duenak badu izana” esamoldearekin laburbildu genezake hizkuntzaren eta mundu ikuskeraren arteko lotura. “Hizkuntzaren bidez errealitatea izendatzen dugu, etiketak jartzen; baina errealitate hori interpretatu eta sinbolikoki sortu ere egiten dugu, abstrakzioak jarrita”, horixe dio euskararen erabilera ez-sexista buruz Emakundek argitaratu zuen lehen eskuliburuak (1988).

Gaztelaniaren edo frantsesaren erabilera sexistari buruz ari bagara, genero maskulinoaren erabilera orokortzailea ezbaian jartzeko erronka etorriko zaigu kolpean burura. Gaztelaniaren kasuan, polemika ugari izan dira: Juan Jose Ibarretxe lehendakariak ‘vascos y vascas’ esaten zuela, Bibiana Aído Berdintasun ministroak ‘miembra’ esan zuela, Espainiako Errege Akademiak (RAE) hizkuntzaren erabilera ez-sexista buruzko gidak kritikatzeko zituen txosten bat argitaratu zuela...

Baina zer gertatzen da euskararen kasuan? Egia da, genero markarik gabeko hizkuntza izanik, zailtasun gutxiago somatzen eta topatzen ditugula egunerokoan (neutroak baitira ikasleak, bazkideak, abokatuak eta abar). Baina horrek benetan esan nahi al du hizkeran ez dagoela sexismorik?

Gida honek abiapuntu hartu duen *online* ikastaroa prestatzeko, euskarazko hedabideetan, literaturan edo bertsolaritzan dabilen jendeari galdetu diogu, eta haiek onartu dute egunerokoan ez dutela gaiari buruz askorik hausnartzen edo eztabaidatzen, hain justu ere hizkuntzak ez

duelako genero markarik. Bi helduleku nagusi (ia bakar) aipatu dituzte: Amelia Barquinek idatzitako eta Emakundek argitaratutako 'Euskararen erabilera ez sexista' gidaliburua eta *Berria* egunkariaren *Estilo Liburuko* deontologia atala. Ikastaro honetan, erreferentzia gehiago jasotzeaz gain eta material horren irizpideak laburbiltzeaz gain, hausnarketa eta eztabaida aberasteko erronka dugu mahai gainean. Prest al zaudete?

2 Iturria: Emakunderen terminoen glosarioa.

3 Iturria: Euskaltzaindiaren hiztegia

"Hizkera ez-sexista" ez, baizik "hizkera inklusiboa" kontzeptua erabiliko dugu, sexismoaz gain hizkeran islatzen diren beste diskriminazio ardatzak ere hartu nahi ditugulako aintzat: heterosexismoaz, etnozentrismoaz, arrazakeriaz eta kapazitismoaz arituko gara, eta genero binarismoa apurtzeko bideak ere aztertuko ditugu.

Hasi baino lehen, ikastaroan behin baino gehiagotan erabiliko ditugun kontzeptuak argitu nahi ditugu:

SEXISMOA: Patriarkatuan erabiltzen diren metodoak, banan-banan, eta horiek denek batera osatzen duten multzoa; metodo horien ondorioz, pertsonen sexuaren arabera ematen zaizkie pribilegioak, edo bereizten, eta ez zaie uzten daukaten giza gaitasun guztia garatzen².

MATXISMOA: Gizona, berez, emakumea baino gehiago dela uste duen jarrera eta pentsaera³.

ANDROZENTRISMOA: Androzentrismoa ez da gizonen ikuspuntuak gidatutako mundu ikuskera hutsa; gauza guztien erdigunean jartzen du gizona, eta adierazten du ikuspegi hori onena dela, unibertsa dela, eta ez dagoela bestelako ikuspegi posiblek. Androzentrismoaren arabera, gizonaren ikuspuntuak balioa eta onespena ematen dituenez gero, gizonentzat ona dena gizateria osoarentzat da ona. Gauzak gizo-

SARRERA

nen ikuspuntu partzialaren arabera izango dira garrantzitsuak, onak edo txarrak. Emakumeen aurkako bereizkeria sexista mota bat da. (...) Ikuskera androzentrikoak gizateria eta gizona nahastu ditu. Ikuskera horretan, gizonak etengabe onesten dira, eta haien merituak goستن; emakumeen ikuskera, haien premiak eta jarduerak, aldiz, ozta-ozta aipatzen eta onesten dira, eta, hala egiten denean, gizonek tradizionalki betetako esparruei baino garrantzi sozial txikiagoa ematen zaien eremuetan besterik ez da egiten⁴.

GENERO BINARISMOA: Kategoria baztertzailak ezartzen ditu: gizon eta emakume, maskulino eta femenino, eta horietan bietan sailkatzen dira pertsona guztiak. Kategoria bakoitza definitzeko ezaugarriak ezartzen ditu momentu historikoaren arabera. Pertsona batek jaiotzean ezarri zioten sexuarekin bat ez datorren ezaugarri bat erakusten badu, genero zaingoa agertuko da desbideratze hori zuzentzeko asmoarekin. Intersexualitatea eta transexualitatea, horra hor genero binarismoaren fikzioari desafioa egiten dioten bi esperientzia⁵.

MISOGINIA: 'Emakumeekiko ezinikusia' definitzen du Euskaltzaindiak. RAEk definizio zabalagoa ematen du: "Emakumeekin eta feminitatearekin lotutako ororen kontrako gorrotoa edo ukapena". Xehetasun hori garrantzitsua da, esaterako, homofobia eta misoginia lotuta daudela ulertzeko.

⁴ Josetxu Riviere Pikarako Glosario Feministan:



⁵ 'Moscas de colores' LGTB webguneko glosariotik euskeratua:



1

1 GAIA

GIZONKERA BATUA

alboratzeko bidean

1.1. EUSKARARI ETA SEXISMOARI BURUZKO HAUSNARKETAK, ERRONKAK ETA EGITASMOAK

1977. urtean Alvaro García Meseguer-ek 'Lenguaje y discriminación sexual' liburua argitaratu zuen. Liburu horretan, hainbat hizkuntzaren zama sexista neurtu zituen: euskarak %5eko zama sexista zuen, frantsesak, berriz, %40koa, gaztelaniak %80koa eta ingelesak %15ekoa, betiere ikertzaile horren arabera. Datu horiek ikusita, ondorioztatu genezake euskararen kasuan ez dagoela hizkuntzaren inguruan hausnartzeko beharrik.

Ondorio eroso horrekin konforme geratu ordez, ikertzaile eta erakunde ugari hainbat artikulu, eskuliburu eta bestelako dokumentu publikatu dituzte. Izan ere, hauxe dute premisa nagusi: jendartean sexismoa errotuta baldin badago, sexismo hori nahitaez islatuko da hizkuntzan eta hizkeran. Genero markarik gabeko hizkuntza izanik, maskulinoaren nonahikotasuna ez da hain agerikoa. Beraz, egile horien eginkizuna bestelakoa izan da: sexismoaren bestelako arrastoak identifikatzea.

2003. urtean, Amaia Alvarez Uriak Euskal Herriko Emakume Abertzaleen II. Topaketetan hitzaldi bat eskaini zuen gai honen inguruan. Ponentzia osorik irakur dezakezue erabili.eus webgunean⁶. Ordura arte egindako lanak biltzea eta aztertzea zen helburuetako bat, hain zuzen ere.

Alvarez Uriak bildutako bibliografiako erreferentziarik zaharrena, hau xe: Emakundek 1988an argitaratutako 'Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago. Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako proposamenak' gidaliburua. Hortik aurrera 23 erreferentzia gehiago bildu zituen.

6



2008. urtean, gidaliburu berria argitaratu zuen Emakundek; 'Euskararen erabilera ez sexista', Amelia Barquinek egina. Edonola ere, hizkuntzaren erabilera ez-sexista inguruan Emakundek argitaratu dituen gain-erako materialak gaztelania hutsean daude, edo euskarara itzuliak, baina gaztelaniazko adibideak mantenduz.

Hortik aurrera erakunde gehiagok publikatu dituzte beren gidaliburuak. Besteak beste, hauek:

- ✗ **UPV/EHU-n euskararen eta irudien erabilera ez-sexistarako gida**7. Egilea, Marije Apodaka Ostaiakoetxea.
- ✗ Gipuzkoako Foru Aldundiaren **Hizkuntzaren erabilera ez sexistarako jarraibideak**

Sarreran aipatu dugun bezala, kazetaritzaren alorrean *Berria* egunkariaren *Estilo Liburu*9 da erreferentzia nagusia. 'Bereizkeriarik gabeko tratamendua' epigrafearen barruan, 'Sexismoa', 'Askatasun sexuala' eta 'Migrazioa eta gutxiengo etnikoak' atalak aurkituko dituzue. Gida hone-tan estilo liburu horretako hainbat adibide aipatuko ditugu.

'Zer da sexista, hizkuntza edo erabilera?' galderari tiraka, hainbat adituk emandako erantzunak bildu zituen Amaia Alvarez Uriak ponentziaren hasieran:

"Kultura sexistatik mintzaira sexista dator eta mintzaira sexistak kulturaren sexismoa iraunarazten du" (**Agurtzane Juanena**).

"Hizkuntza errealitatearen sortzailea da eta munduak sortua aldi berean" (**Uri Ruiz Bikandi**).

"Euskara kultura sexista batean murgildutako hizkuntza ez-sexista da" (**Linda White**).

"Hizkuntzek ez dute beren egituragatik diskriminatzen. Hizkuntzak kultura jakin baten isla dira" (**Begoña Muruaga**)

"Ezin dugu hitz egin... 'hizkuntza sexista'ri buruz, baizik eta hizkuntzaren 'erabilera sexista'ri buruz... hizkuntzak... aukera ugari ematen baitu errealitate jakin bat deskribatzeko" (**Emakunderen proposamenetan**)

7



8



9



1 GAIA

Alvarez Uriak zalantzan jarri zuen Emakunderen hausnarketa hori ('hizkuntza bera ez da sexista, erabilera baizik' mantra) eta arauaren (sistemaren, hizkuntzaren edo gramatikaren) eta erabileraren arteko harreman dialektikoa onartzearen alde agertu zen: "Hizkuntzaren bi aldeek dute zeresana eta hauek biak kontuan izan behar dira sexismoa gaindituko bada".

Arauk ere zeresana daukala uste duenez, Euskaltzaindiaren papera aipatu zuen Alvarez Uriak:

Aipatzekoa da hizkera ez-sexista erabiltzeko gomendioek egin duten bidea, hau da, Emakunde eta HAEE-IVAPek hartutako erabakiak abian jarri dituzte eta Euskaltzaindiak ez ditu sinatu nahi izan Emakunde, HAEE-IVAP, Hizkuntz Politikarako idazkaritza eta Euskaltzaindiaren lan taldean egindako gomendioak. Aitortu dute ez dela astakeria baina ez datoz bat.

Euskaltzaindiak emandako arau eta gomendioetan gramatikaltasunari eta tradizioari erreparatzen diote (honen ondorioz d'vandva hitz elkarketak aipatzen dituzte; seme-alabak eta ez semeak adibidez, baina besterik ez). Real Academia de la Lengua Españolarekin berdin gertatzen da, ez dute gehiegi egin hizkera ez-sexista erabiltzeko gomendioei dagokienez, tradizionalki gizonezkoen lanbideren bat femeninoan ere jarri (tradizio handiena dutenak soilik; adibidez, abogada) eta kito. Ondo legoke XXI. mendea izaki hauen aldetik ere partehartzea egotea.

Orain dela 15 urte idatzi zuen hori. Gaur egun zer jarrera du Euskaltzaindiak? 2018. urteko urtarrilean, hain zuzen ere ikastaro hau prestatzen ari ginen bitartean, Euskaltzaindiak jakinarazi zuen kutsu sexista edota heterosexista zeukaten zenbait definizio aldatu zituela.

Hona hemen *Argiak* argitaratutako albistea:

Euskaltzaindiak bere hiztegiko zenbait definizio alda ditzake, genero-berdintasuna hobeto islatzeko

Gizartea aldatuz doanez, forma batzuen definizioak ere aldatu egin direla adierazi du Euskaltzaindiak prentsa-ohar baten bidez. Adibidez, "aitagarreba" hitza lehen "senarraren aita amaztearentzat, edo amaztearena senararentzat" definitzen zen

eta oraingo proposamenean honela izango da: “Ezkontideetako baten aita beste ezkontidearentzat”.

“Errain” hitzaren definizioan ere, lehen “semearen emaztea” irakur zitezkeen eta orain “semearen edo alabaren emaztea” gisa jasotzea proposatu da, gizarte-ereduaren aldaketa hiztegiara ekarrita.

Dinastia-kontuetan ere aldaketak

Halako hainbat egokitzapen egin dira familia-loturen aldetik. Horiekin batera, dinastia-kontuetan ere egin dira aldaketa-proposamenak. Esaterako, “infanta” hitza orain arte “erregaren alaba, erreginagaia ez dena” gisa zegoen jasota eta proposatu da “monarka baten alaba, erreginagaia ez dena” jartzea.

Aldaketa horiek aztertu eta oharreztatu ditu akademiaren batzorde ahaldunduak, eta osoko bilkuran aurkeztu dira. Orain, hilabeteko epea dute euskaltzain osoek zerrenda horiei oharrak egiteko, eta, kontrakorik ez bada, proposamenak ontzat eman eta hiztegian aldatuko dira.



1 GAIA

Azken paragrafoan, pertsonen izenetan sexuaren araberako bereizketaren inguruko polemika aipatzen du *Argiak*, baina horren inguruan 3. gaian arituko gara.

Tribuaren Berbak-eko 'Euskara sexista al da?' saioan, Ibon Sarasola euskaltzainak zera esan zuen: "Gizartea matxista baldin bada, hizkuntza matxista izango da. Eta gizartea aldatzen den neurrian, hizkuntza aldatu egingo da". Haren esanetan, hiztegia mendez mende metatu diren aztarna matxistei konponbidea eman ez baizik berdintasunaren aldeko kanpainak bultzatu behar dira gizartean. "Akademiek beti kontserbadoreak izan behar dute, azken modari moldatzea ez da egokia. Hiztegi-gileok erabileraren notarioak gara, besterik gabe".

Tribuaren Berbak-eko beste saio batean, euskalgintzaren eta feminismoaren arteko loturari buruz aritu ziren. Mari Luz Estebanek azaldu zuen feminismoak euskalgintzari egin diezaiokeen ekarpena:

10



Hizkuntzaren erabilera ez-sexista defendatzeko ere erabil dezakegu euskararen eta feminismoaren arteko lotura. Horrela azaldu zuen Uxue Alberdik 'Bertsolaritza eta gorputza' artikuluan¹⁰:
Horri tiraka, goazen hurrengo atalera:

Estitxu Eizagirrek (Hernani, 1979) kode berri baten beharra aldarrikatu zuen publikoki egiten den komunikaziorako, eta kode horri "emakumera batua" deitu zion. Aldarrikapen horren bidez, komunikazio publikoa "gizonkera batuan" (maskulinitasun hegemonikotik) egiten zela salatu zuen, eta horrek ez zuela nortasunak, emakumeenak eta gizon askorenak, osotasunean garatzen uzten. Emakumeok ere publiko orokorrarekin konpartitzen dugun kodea eraiki eta jendarteratu beharra dugula agerian utzi zuen.

Emakumera batuaz ari garenez, interesgarria da sexuen subordinazioa hizkuntzen subordinazioarekin alderatzea, euskararen herrian zapaldu linguistikoen kontzientzia genero zapalkuntza baino dezentez barneratuago baitugu.

1.2. ANDROZENTRISMOAREN AZTARNAK

Ikus ezazu bideo hau:



Tribuaren Berbak-eko 'Euskara sexista al da?' saioan asmakizun hori proposatu zuten, hauxe erakusteko: nahiz eta euskaraz ez dagoen genero markarik, pertsonok joera androzentrikoa dugu. Amelia Barquinek dioenez, asmakizun hori gaztelaniaz proposatu zen, "*que venga un cirujano*" esatean jendeak gizon bat imajinatzen zuela frogatzeko eta, hortaz, maskulino orokortzailearen neutraltasunaren iruzurra kuestionatzeko. Barquinek, ordea, hauxe ikusi zuen: euskaraz asmakizun berbera erabiltzerakoan, nahiz eta "zirujaua" genero markarik gabeko hitza izan, jendea, hala ere, ez zen gai andrazko bat imajinatzeko.

Hedabide batean honako albiste hau irakurriko bazenu...

Rafa Nadali dopatzea egotzi zion Frantziako ministro ohia zigortu dute

Sarkozyren agintaldian Osasun eta Kirol ministroa izandako Bachelotek 10.000 euro ordaindu beharko dizkio tenistari, kalte-galeren ordainetan.

1 GAIA

ministro hori emakume edo gizon imajinatuko zenuke? Ziruiauaren adibidean bezala, litekeena da zuetako askok gizon bat irudikatzea. Baina Roselyne Bachelot da albiste horren protagonista. Alvarez Uriak azaltzen duenez, euskaraz ere gertatzen da Linda Whitek 'genero kutsadura' deitzen duen hori:

Izen neutroak pentsamenduan genero batekin identifikatzen ditugu (medikua, langilea, politikaria, erizaina, idazkaria, garbitzailea); generoa morfologikoki ez da ia agertzen euskaraz, asoziazio kultural baten ondorioz gaineratu/ezarri zaio. Baina ez da lanbideetara mugatzen, gizonezkoek balio generikoa duen edozein esaldi bereganatzen baitute (gazteek = gizon gazteek)

UPV/EHUK argitaratutako gidan zera aipatzen da:

Euskaraz ere sexua zehaztu nahi denean, lanbidearekin batera "emakume" edo "gizon" hitza agertu beharko litzateke era simetrikoan, adibidez: "emakume antropologoa" edo "gizon antropologoa". Askotan gertatzen da, soilik emakumeen kasuetan aipatzen dela, hau da, "antropologoa" gizona bada ere, "antropologo emakumea" esan behar bide dugu generoa zehaztu nahi izatera.

Hori dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiaren gidan onartzen da generoa zehazteko erabakia komenigarria izan daitekeela lan politiketan:

Lan arloa da emakume eta gizonen arteko desberdintasun gehien topa dezakegun arloetako bat. Hori dela eta, desberdintasunean oinarritutako asoziazioak kontziente egitea izango litzateke. Horretarako, zenbait kasutan (nahiz eta euskaraz behar ez duen), sexuak zehaztea komenigarria izan daiteke.

× Suhiltzaile lanposturako oposaketan deialdia ireki da.
(euskararen aldetik suhiltzaile horiek gizon eta emakumeak izan daitezke, baina lan

horretan soilik gizonak ikusten ohituta gaudenez, euskaldun gehienok soilik gizonak irudikatzen ditugu. Horregatik, antzeko kasuetan, esplizitoki sexu biak aipatzea berdintasunaren aldeko erabilera egokia izan daiteke):

- × Suhiltzaile lanposturako oposaketen deialdia ireki da, gizon eta emakumeentzat.
- × Emakume eta gizon erizainak kontratatuko dira.
- × Hirigintza teknikari lanpostuak beteko dira, gizon nahiz emakumeekin.

Gomendio horren harira, instituzio jardueren informazio eta hedatze kanpainetan "Emakume eta gizonak zalantzarik gabe islatuko dira, bi sexuak zehaztuz" irizpidea nabarmentzen du gidak, are gehiago formakuntzari eta lanari buruzkoak badira.

Gai horretan sakontzeko, bertsolaritzaren esparrua interesgarria da. Gai jartzaileak genero markarik gabe deskribatzen ditu egoerak. Bertsolariek erabaki behar dute nortzuk diren egoera horietako protagonistak. Izaro Zinkunegi Barandiaranek, Gradu Amaierako Lanean, genero ikuspuntutik aztertu zituen 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean jarritako gaiak, bertsolariek hartutako paperak eta sortutako testuak. Hona hemen ondorioak:

Orokorrean ez da genero markarik zehazten gaietan, hau da, "guraso", "bikote" edo "ume" gisako terminoak erabiltzen dira, eta ez "ama", "seme", "senar", "emazte" edo antzekoak. Lanpostuen kasuan ere ez da genero markarik zehazten. Kasu hauetan bertsolariak berak erabakitzen du zein ikuspegitik abestu, baina hau aurrerago sakonduko dugu. Hala ere, badaude bestelako zenbait adibide ere, esaterako, atentatuan hil zioten aita, aitasemeak, ama bisitatzera doan pertsona edota alabarekin bikotea bisitatzera doana. Honek gaia zehatzago egiten du, eta ondorioz, bertsolariaren papera ere mugatuagoa geratzen da. Hala ere, kasu gehienetan ez da bertsolariaren pertsonaiaren generoa bera zehazten, egoeraren parte den beste pertsonaiarena baizik.

Generoa zehazten ez den gaietan normalean bertsolariak bere paperetik abesten du, hau da, gizonak gizonenetik eta emakumeek emakumeenetik. Adibidez, Maialenek emakumearen paperetik abestu zuen tratu txarrak jasaten dituenaren eta seme-alaben etxerik etxe dabilen adinekoaren gaiak jartzean. Honek zalantza bat jartzen du mahai gainean, mutilen batek gai horiekin abestu balu zeinen paperetik abestuko zukeen? Orokorrean bertsolari bakoitzak bere generotik abesten duela esan badugu ere, hori ez da beti horrela, eta aipagarria da esaterako, bi mutilek emakumeen rola hartzea prostituten paperetik abesterakoan, gaiak horrelakorik zehazten ez duen arren.

1 GAIA

Kazetarion kasuan, gertakari baten berri eman behar dugunean, nola erabaki dezakegu noiz den garrantzitsua protagonisten generoa esplizitu egitea eta noiz ez? June Fernandezek zalantza hori agertu zuen *Argian*, 'Zapiak' izeneko artikulua bat idaztean:

Valladolid. Iraileko arratsalde eguzkitsua. Karima, Arantxa eta beste lagun bat euren seme-alabekin zeuden auzoko igerileku publikoan. Gustura zeuden zelaian, jantzirik, haurrak jolasean begiratzen zituzten bitartean. Bat-batean igerilekuko zaintzailea gerturatu zitzaion: "Hemen ezin duzue jantzita egon. Arropak eranstean ez badituzue, igerilekutik alde egin beharko duzue. Bestela, polizia deituko diot". Zelaian jende gehiago zegoen jantzirik, baina Karimak eta lagunak hijaba zeramaten. Arropa hori izan zen zaintzailea gogaitu zuena.

Buru makurtu gabe, polizia dei ziezaiola erantzun zuten emakumeek. Bi udaltzain hurbildu ziren Karima eta honen lagunarengana eta dokumentazioa eskatu zieten. Arantxari ez zituen ezer eskatu. Karimak haien jarrera hura gertakari sexista eta arrazistatzat jo zituen, udaltzain batek "Espainian zaude, neska. Nik esango banizu zer den arrazakeria...", erantzun zion.

Karima eta Arantxa ez ziren isilik gelditu. Komunikatu bat idatzi zuten Facebooken. Hedabideek albistea zabaldu zuten eta kirol zinegotziarekin bildu ziren. Zinegotziak onartu zuen ez dagoela zelaletan kaleko arrokekin jantzita egotea debekatzen duen araudirik. Baina ez zuen polizia eta zaintzailearen kontrako neurririk agindu. Valladolideko koordinakunde feministak ez zuen elkartasunik adierazi, ez haren inguruko sindikatuek, ezta alderdi politikoe ere.

Zaintzailea, udaltzainak, zinegotziak: gizonezkoak ziren laurak. Datu hori zehazteak eraginik izango al luke artikulua interpretazioan? Diskriminazio arrazista eta matxista horren larritasuna areagotuko al luke? Ala botere jarrera matxistek inpaktu berrera ote dute erasotzailea emakumezkoa denean? Udaltzainetako bat emakumezkoa izan balitz, artikuluan hori zehazteko inertzia sentituko ote zuen egileak?

Bestalde, androzentrismoa hizkeran agertu ez arren, diskurtsoan ager daiteke. Horren adibide bat topatu dugu *Gaztezulo* aldizkariaren 2017ko abenduko zenbakian. 2001. urteko erreportaje bat berrargitaratu zuten, 'Sexua eta droga' izeneko.

Hona hemen pasarte batzuk:

“Alkohola edanda, neskek eta mutilek beranduago lortu ohi dute normalean orgasmoa. Mutil batzuk kezkatuta daude, larrutan ari direla, goizegi isurtzen dutela uste dutelako. Beraz, hau irakurri ondoren, beharbada baten bat zahatua erostera joan da ziztu bizian! Argi ibili, ordea, neurritz kanpo hartu ezkerro, zakila tentetzeko arazoak izan baitaitezke. Are gehiago, epe luzera, arazoa larriagoa izan daiteke”.

(...)

“Zakil buruan kokaina jarrita, gozamen handiago lortzen dela esaten dute batzuek, baina ez dago frogatuta”, dio David Errazti Goenkaleko aktore eta Kalamudia elkarteko kideak. Egia esan, mito handia dago kokainari buruz. Xabier Monux psikoterapeutak dioenez, “anfetek ere eragin bera dute”. Zenbait zientzialariren arabera, kokaina eta anfetak afrodisiakoak izan daitezke. “Dena den, askotan hartzen bada, desioa apaltzen dute eta gizonezkoetan zakila zutitzeko arazoak ageri daitezke”, dio Monuxek”.

Erreportajeak “jendeari” buruz hitz egiten du, edo “neska eta mutilei” buruz, baina gizonen genitalei lotutako ondorioak soilik aipatzen ditu egileak, orgasmoa aipatzen duenean izan ezik. Esate baterako, ez du azaltzen zer eragin daukaten drogek baginaren lubrikazioan.

Zalantzan bagabiltza, ikuspegi bat androzentrikoa ote den, ‘inbertsio erregela’ da hori argitzeko gako bat: kontrakoa balitz, sexuari buruzko erreportaje batean egilea emakumeen gorputzari buruz bakarrik ariko balitz —alkoholak baginaren lubrikazioa oztopatzen duela, klitorian kokaina jartzearen mitoa...—, konturatuko al ginateke testuak ez diola erreparatu biztanleriaren erdiaren gorputzei?

1.3. HIZKERAREN ETA IRUDIEN ARTEKO HARREMANA

Ikus ezazu iragarki hau:



1 GAIA

Ikus ezazu berriro eta aurpegia jarri *off* ahotsak izendatzen dituen pertsoneri. Gizonezkoak izan al dira gehienak? Emakumezko politikaririk, maistrarik, sukaldaririk edo aurkezlerik imajinatu al duzu?

Orain ikus ezazu euskarazko bertsioa:



Lehendabizi bertsio hori ikusi izan bazenu, emakume gehiago imajinatuko zenituela uste al duzu?

Agian baldintzatuta zaude dagoeneko, zirujauaren adibidearen ondorioz... baina adibide hau antzekoa da. Ikastaroetan gazteleniazko iragarkia erabiltzen dugu, *off* ahotsak maskulino orokortzailea erabiltzeak (*maestros, cocineros, presentadores...*) irudikapenak baldintzatzen dituela frogatzeko. Euskararen kasuan, ez daukanez genero markarik, errazagoa al da gizonak zein emakumeak irudikatzea? Seguru asko, lehen aipatutako genero kutsadura gertatuko da. Dena den, neurri batean behintzat, inkontzientean errota izango dugu subjektu unibertuala gizonezkoa delako premisa. Ala ez?

Premisa hori argi geratzen da garraio publikoetan hain ohikoak diren seinaleetan. Haurdun dagoen edo umea daraman ikonoari gona jartzen zaionez, neutro izan litekeen ikonoa gizonezko bihurtzen da. Hiritar neutroa gizonezkoa da: itsua, agurea, muletak darabiltzana... Haurdunak gonarik eramango ez balu, erraz ulertuko genuke irudia? Eta zergatik ez dugu inoiz ikusten muletak eta gona duten ikonorik?



Baina EITBren iragarkira bueltatuz, androzentrismoa elikatzen dituen osagai gehiago ditu bideoak: *off* ahotsa gizonezko batena da, eta aulkiak jarri eta kentzen dituzten hankek ere gizon batenak dirudite. Osagai horiek aldatuko bagenitu, ariketa honen emaitza desberdina izango litzake?

Rosa Peñalver Pérezek DBHko testuliburuak ikertu zituen 'Zer irakatsi nahi duzu? Liburu sexista batek erdia ezkututzen du' lanean, eta, horren arabera, liburu horietako ilustrazioen %57k gizonetzko pertsonaia bat edo gehiago erakusten du, %15k emakumezko pertsonaia bat edo gehiago eta %27k, berriz, talde mistoak¹¹ Datu horiei begira ondoriozta genezake gizonen irudia emakumeena baino gehiago erabiltzen dela errealitateak erakusteko orduan.

¹¹ Hezkidetzan Gida, Hezkidetzan Esku Hartzen ikastaroan aipatua.

Zer aurpegi jarriko zenioke pobrezari? Eta langabeziari? Erreprezioari? Borroka politikoari?

Irantzu Varelak horrela azaltzen du androzentrismoaren esangura eta irudietan nola islatu ohi den:



Gaztelaniaz eta frantsesez maskulinoa erabiltzen da generikotzat, eta horrek eragin egiten digu errealitatea imajinatzen dugunean. Aldizkari monografiko baten izenburua 'Refugiados' baldin bada, nahiz eta azalean pertsonarik ez agertu, gizonetzko errefuxiatuak etorriko zaizkigu burura seguru asko. Euskaraz, ordea, errefuxiatu hitza neutroa izanda, aldizkariaren azala funtsezkoa izango da. *Berriako Estilo Liburuaren* gomendioetan aintzat hartzen da egoera hori: "Informazioaren alderdi grafikoa ere zaindu behar da, ideien artean nahi gabeko lotura inplizituak sortzea eragozteko".

Telebistako albistegietan artxibo irudiak aukeratzekoan, funtsezkoa da emakumeen zein gizonen presentzia bermatzea. Honako albiste hau praktika ontzat jotzen dugu, *off* ahotsak langabeziaren datuen berri ematen den bitartean emakumezko zein gizonetzko langileak agertzen baitira irudietan:



Argazki bankuek ez badute emakumeen ikusgaitasuna bultzatzen laguntzen, edo topatzen ditugun irudiak estereotipatuak badira, ilustrazioek askatasun handiagoa eman diezagukete. *Argia* aldizkariaren *Larrun* monografikoetako azaletan Joseba Larratxek marratzutako praktika on ugari topatu ditugu. Errusiako Iraultzari zein aurpegi jarriko zenioke? Hona hemen *Larruneko* azala:

1 GAIA



Feminismoarekin edo emakumeen eskubideekin lotuta ez dauden beste monografi-koetan ere irudi berdinzaleak egin ditu.

Androzentrismoak dakarren miopia identifikatzen dugunean eta emakumeen ikusgaitasun faltaz ohartzen garenean, betaurreko moreen metaforaren bitartez adierazi du feminismoak mundua desberdin eta koloretsuago ikusten dugula. Ziur gaude, he-mendik aurrera, androzentrismoarekin lotutako adibideak eta praktika gomendaga-riak aurkituko dituzuela barra-barra egunerokoan.



2

2 GAIA

KOMUNIKAZIO EZ-SEXISTAREN GAKOAK

2.1. GENERO MARKARIK EZ: ABANTAILA DA, ALA ARAZOA?

Aiora Jaka Irizar (2013) itzultzaileak oso ondo azaldu zuen genero markarik ezak dakarren erronka:

Itzultzaileen kontzientzia feminista... ala matxista?

Euskaldunok beti poztu izan gara euskararen genero-bereizketa ezaz, batez ere inguruko erdarak maskulinoaren mendeetako nagusitasunari aurre egin eta arazoari irtenbide asebetegarri bat emateko ahaleginean formula astun (*los/las ciudadanos/ciudadanas vascos/vascas...*) bezain barregarriak (*personas infantiles*) asmatzen ikusten ditugun garaiotan. «Eskerrak guk ez dugun halakoen beharrik! —pentsatzen dugu maiz, kopetako izerdia lehortzearekin batera—. Behingoagatik, euskara askoz ere sinpleagoa da!». Bada, azkenaldian, behin baino gehiagotan bihurtu zait arazo itxuraz hain erraza dirudien auzia, hainbat itzulpenen aurrean beste hizkuntzetako itzultzaileek hartu behar ez duten erabaki bat hartzera behartuta ikusi izan dudalako neure burua.

Erdaretako maskulino generikoa euskaratzeko ez daukagu inolako arazorik: *les politiciens français*, esaterako, «frantses politikariak» itzuliko genuke, eta kitto. Arazoak, ordea, genero-marka orokorra ez, baizik eta espezifikoa denean sortzen dira (edo sor daitezke, behintzat): *un amigo* «lagun bat» da, jakina, baina *una amiga* ere berdin-berdin da «lagun bat». Kasu askotan horrek ez dauka

garrantzirik, eta ez dugu «emakumezko lagun bat» edo «gizonezko lagun bat» itzultzeko beharrik sentitzen, erdal izen-sintagmak daukan informazio gehigarri hori euskaraz testuinguruak ematen duela iritzita edo informazio gehigarri hori testua ulertzeko ezinbestekoa ez dela pentsatuta.

Dena den, esango nuke halakoetan ere gure kontzientzia matxista gailentzen zaiola maiz gure kontzientzia feministari: ziur naiz hamar itzultzailetik bederatzik ez lukeela inolako arazorik izango hau honela itzultzeko: *Un taxista ha sido detenido por conducir ebrio*, «Taxi-gidari bat atxilotu dute mozkortuta gidatzeagatik». Aldiz, goiburua femeninoan balego, *Una taxista ha sido detenida por conducir ebria*, uste dut bati baino gehiagori bonbillatxoa piztuko litzaiokeela, eta femenino hori euskarazko goiburuan nola txertatu hausnartzeari ekingo liokeela. Kazetariak ez lukete arazo handiegirik izan behar halakoetan, goiburuan zehatu ez arren azpituduan edo gorputz-testuan adieraz baitezakete taxi-gidaria emakumezkoa dela: «Taxi-gidari bat atxilotu dute mozkortuta gidatzeagatik. Emakumeak positibo eman zuen poliziaren kontrol batean», esaterako. Baina itzultzaileok, batez ere literatura itzultzean, ez ditugu eskuak hain libre izaten, eta askotan ez da hain erraza izaten genero-kontu horiek itzultzea.

Esku artean dudak itzulpen batean, behin baino gehiagotan gertatu zait ataka estuan geratzea, emakumezkoaren marka sartu ala ez sartu. Eta guztiz amorrarazi nau konturatzeak maskulinoaren kasuan ez dudala planteatu ere egin gizonezkoaren marka sartzea, hasieratik «normala» egin baitzait pertsonaia jakin bat gizonezkoa izatea.

(...)

Beraz, zer egin behar dugu itzultzaileok horrelakoetan? Zer da kontzientzia feministaren arabera itzultzea? Pertsonaia jakin bat emakumezkoa dela zehaztea, ustez-eta bestela irakurleek gizonezko batengan pentsatuko dutela? Ala generoak zehatu gabe uztea (jatorrizkoak ez baldin badu, noski, beste inon generoa zehazten duen beste hitzik erabiltzen), irakurleen kontzientzian generoen bereizkuntza gaindituta dagoelako esperantzan? Ala are, zenbait itzulpen-teoria feministak proposatzen duen bezala, jatorrizkoan ageri diren genero-markak nahierara manipulatzeko, itzulpenean

2 GAIA

irakurketa berriak iradokiz? Jakina, hemen ere, beste hainbat itzulpen-auzitan bezala, ez dago erantzun bat eta bakarrik; kasuaren arabera erabaki baten ala bestearen alde egingo du itzultzaileak. Nolanahi ere, halakoek argi uzten dute itzultzaileak ezin duela inoiz «neutroa» izan, ondorio garrantzitsuak izan ditzaketen erabakiak hartzera behartuta baitago etengabe.

Danele Sarriugarte itzultzailea eta idazlea da. Gida honetarako hurrengo ekarpena helarazi digu:

“Genero markarik ez edukitzeak alde batetik malgutasuna ematen du, baina beste batzuetan, bisibilizatu nahi denean edo genero marka erabili nahi denean genero marka hori iraultzeko, ez da hain erraza, ez daukagulako ‘él/ella’ bezalakorik. Markatu nahi denean, arazoak egon daitezke. Sormen lanean halako gauzak izaten ditut buruan”.

Euskararen erabilera ez-sexista buruzko gidetan, aholku hauxe ematen da: gaztelanitik edo frantsesetik euskarara itzultzen ari garenean, ez eutsi genero markak saihesteko haiek erabiltzen dituzten perifrasiari. Hona hemen Gipuzkoako Foru Aldundiaren gidak dakarren azalpena:

Gazteleraz maskulino orokortzailea saihesteko maiz “persona” eta “personas” erabiltzen direnez, maiz, euskaraz ere bai, baina ez dira beharrezkoak. Era berean, izen eta adjektiboetan generoa markatzen da batzutan, behar ez denean. *Beka jaso duten pertsonak* (“pertsonak” ez da beharrezkoa). *Behadunak, beka jaso dutenak, beka jasotzaileak...*

Adibide hori argia da, baina Berriak adibide korapilatsuago bat proposatu du:

Beste hizkuntzetatik itzultzeko orduan, kazetariak saiatu behar du egoki euskaratzeko informazioa biltzen. Esaterako, jakin behar du *children*, *enfants* edo *hijos* zer diren zehazki: seme-alabak, semeak edo alabak. Informazio hori biltzea ezinezkoa bazaio, *seme-alabak* idatziko

du, eta txikiak badira, *haur* eta *ume* ere erabil ditzake. Modu berean jokatuko du euskaraz hitz elkartuak erabiltzen diren beste kasuetan ere: *neska-mutikoak, errege-erreginak, maisu-maistrak, jaun-andreak, andre-gizonak, neba-arrebak...*

Eta, alderantziz gertatzen bada, hots, euskarazko testu bat itzuli behar badugu genero markak dituen hizkuntza batera? Nola asmatu pertsonen generoa? Amelia Barquinek, *Euskara queeragoa da gaztelania baino?* (2014) artikuluan, Anjel Lertxundiren bi artikulu erabiliz adierazi zuen erronka hori. Genero ikuspegirik gabeko itzultzaile askok ez al lukete zuzenean ondorioztatuko taxi gidaria gizonezkoa dela edo bikotea hetero-sexuala izango dela nahitaez?

2.2. EUSKARAREN ERABILERA JATORRA ETA EZ-SEXISTA

2015. urtean, EHUko ikasturte hasierako ekitaldi ofizialean, Errektoretzaren aginduz, abesbatzak *Agur Jaunak* abesti solemnearen bertsio berri bat eskaini zuen. Jainkoaren erreferentzia kentzea eta emakumeak aipatzea onartu zuen Unibertsitateak:

Jatorrizko hitzak:

Agur, jaunak!
Jaunak, agur!
Agur t'erdi.
Danak Jainkoak
eiñak gire,
zuek eta
bai gu ere.
Agur, jaunak!
Agur!
Agur t'erdi.
Hemen gire.
Agur, jaunak!


Agur Jaunak eta Andreak "berria":

Agur, jaunak
eta andreak!
Agur t'erdi.
Danak berdinak
einak gire,
zuek eta
bai gu ere.
Agur, jaunak
eta andreak!
Agur t'erdi.
Hemen gire.
Agur, danak!

2 GAIA

Erabakiak erakusten digu alde batera utzi nahi dela emakumeak esparru publiko-
tik baztertzeko joera historikoa. Euskaraz ez da maskulino gramatikala erabiltzen
orokortzaile bezala (“vosotros”, “alumnos”, “clientes”...); hala ere, androzentrismoa, hau
da, gizona erreferentziazat hartzeko joera, berdin ager daiteke. Esaterako, “gizon” “gi-
zaki”-ren parekoa balitz bezala erabiltzen denean: “Jende askok ez du oraindik sinesten
gizona ilargira iritsi zela”. Edo, adibidez, enpresa batera gure kurrikuluma bidali nahi
dugunean eta, ez dakigunez enpresa horren zuzendariaren generoa zein den, eskuti-
tzean “Zuzendari jauna” esaten dugunean, “Zuzendari jaun/andrea” esan ordez.

RAEk dio ‘hombre’ kontzeptua egokia dela oraindik ere gizakia izendatzeko, euska-
razko hiztegitan, ordea, “gizon” eta gizaki ez dira sinonimotzat jotzen.





Elhuyar hiztegia:

Literaturan eta musikan, hala ere, 'gizon' orokortzailearen adibide ugari daude. Amelia Barquinek Mikel Laboaren 'Izarren hautsa' ekarri du gogora: "Gizonak badu inguru latz bat menperatzeko premia", "Gizonen lana jakintza dugu: ezagutuz aldatzea".

2 GAIA

Eta *giz-* aurrizkia daukaten *gizaki* eta *gizarte* kontzeptuak androzentrikoak al dira? Eztabaida hori pil-pilean dago. Emakunderen arabera, ez da hala: konnotazio hori galdu da eta *gizakik* ez dauka kutsu androzentrikorik. Amaia Alvarez Uriak *jendarteren* aldeko apustua egiten du:

Giza- erroa gizon hitzetik datorrela aintzat hartzen badugu, etimologikoki *gizaki* maskulino izaten jarraitzen du. Honen aurrean bi jarrera egon dira: alde batetik hegoaldean *gizaki* neutrotzat hartu izan denez luzaroen eta gaur egun semantikoki desberdinak direnez horrela uztea, (*giza*-ren eratorriekin batera, *gizarte*, *gizalege*...) eta maskulino-rako *gizon*, *gizaseme* eta *gizonezko* lagatzea.

Bestetik maskulino orokortzaile eta emakumeen izkutatzaile den forma hauek baztertzea eta *jende(hi)*, pertsona eta *jendarte* proposatu dituzte, (*gizon*, *gizaki* eta *gizaseme* forma maskulinoak izanik eta *emakume*, *emazte*, *emazteki* femeninoak). Gainera, kontuan hartu behar da iparraldean egun *gizaki* forma maskulinoa erabiltzen dela *emaztekiren* aldean.

Hiztegiari buruz ari garenez eta hain gai polemikoa izan denari buruz komentario xume bat egitearren, hona hemen Ibon Sarasola euskaltzain eta hiztegiak esaten duena *gizaki* hitzari buruz:

“Tradizioa aldarrikatu behar dugu sasitradizioen, asmaketa arbitrario eta alferrikakoen –batez ere alferrikakoen- aurrean, baina ez beti eta ooren gaintetik. Adibidez, *gizaki*, tradizioan ‘gizonezkoa’ da batez ere. Baina ‘giza arrazako banakoa’ adieran ere erabili da. Hizkuntzak gaur egun, begien bistako arrazoiengatik, *gizonezko* nahiz emakumezko edozein izendatzeko, *gizon*-ez bestelako hitz bat behar du. Froga daiteke, tradizioa gorabehera, *gizaki* dela betebeharrorretarako aukerarik egokiena, eta ‘gizonezko’ esateko baditugula *gizaki* bezain egokiak. Horrelako egoeretan, tradizioak ez lioke oztopo egin behar, inondik eta inola ere, hizkuntzaren aurrerabideari”.

Beraz, bai Ibon Sarasolak, bai Emakundek *gizaki* eta *gizarte* hitzak proposatzen dituzte forma orokor eta neutrotzat. Erabaki honen arazoa da hegoaldera mugatzen dela eta, iparraldea kontuan hartu nahi badugu, ikuspegi global batez (euskara Euskal Herriko hizkuntza denez), *jende(hi)*, *persona* eta *jendarte* erabili beharko genituzke (tradizioan ere agertzen direnak, Lhanderen hiztegian besteak beste).

Bilgune Feministak apustu argia egin du *jendarteren* alde. *Berriako Estilo Liburuan*, ordea, *gizarte* hobesten da. *Jendartek* bi arazo nagusi dakartza: alde batetik, ‘*gizarte*’ androzentrikotzat jotzen badugu, orduan berdin aldatu beharko genituzkeela antropologia eta beste mila termino, horiek ere baitute erroan gizona *gizakiaren* zentzuan; bestetik, *jendarte* hitza euskararen tradizioan erabili dela *jende* artea adierazteko, eta hortaz, nahastea sortzen duela.

'Anai' hitzaren erabilera orokortzailea ere ezbaian jarri dute hizkuntza ez-sexistaren aldeko egileek. 'Anaitasuna'-ren ordez 'senidetasuna', 'adiskidetasuna' edo 'hauridetasuna' (Iparraldean batez ere) proposatu dituzte.

Bestetik, euskaraz, garrantzitsua da forma jatorrak alde batera uztearen ondorio diren erabilera sexistak saihestea.

Adibidez, hitanoaren erabilera desagokia. Hitanoan, ezberdin mintzatzen da solaskidearen arabera: emakumeekin aritzean, '-n' atzizkia (noka) erabiltzen da ('kanta ezan'), eta gizonekin, berriz, '-k' atzizkia (toka: "kanta ezak"). Hitanoa desagertzeko arriskuan dago: noka, gainera, are eta nabarmenago eta azkarrago ari da desagertzen. Hona hemen galera asimetrico horren hiru joera:

× Gizonekin toka egitea eta emakumeekin zuka. "Azterketa egin ezak" vs. "Azterketa egin ezazu".

× Emakumeekin noka egin ordez, toka egitea: "Azterketa egin ezak", "Azterketa egin ezan" esan ordez.

× Talde misto edo abstraktu bati hitz egitean, toka bakarrik egitea. Esaterako, iragarki batean: "Aizak! Etor hadi gurekin auzolandegira" jartzea, "Aizan! Aizak! Etor hadi gurekin auzolandegira!" esaldi egokiaren ordez.

Danele Sarriugartek bi esparrutan identifikatu omen du asimetria hori: 2017ko bertso txapelketaren osteko elkarrizketetan (gizonezko bertsolariari gizonezko elkarrizketatzaileak hika hitz egin; gainerako kasuetan zuka) eta liburu prentsaurrekoetan gizonezko idazleek hika egitea gizonezko kazetariei, baina emakumei ez. "Erregistro horren bitartez konplizitate bat eraikitzen da, eta emakumeen artean ez da horrenbeste erabiltzen. Ni natorren inguruan ez zen hika hitz egiten eta gabezia bat bezala bizi dut", onartu du.

Gero, nokaren erabileraren bi erreferente aipatu ditu: Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* eleberrian, hika hitz egiten dute pertsonaia guztiek, noka eta toka erabiliz.

Hallean zutik aurkitu nuen Luka.

— *Gainean ditinagu.*

— *Bazakiat.*

Sukalderaino jarraitu zidan. Ardo-botilari kortxoa atera eta bi kopatan zerbitzatu nuen. Gazta mozten laguntzeko eskatu nion, kopa hurbildu nion topa egiteko:

2 GAIA

— *Tratu bat egingo diagu.*

— *Bota.*

— *Telefonoak itzaliko ditiagu eta lasai-lasai hustuko ditiagu bi ardo-botilok.*

— *Bakarrarekin nahikoa izango dun, gorde ezan bestea okasio bereziren baterako.*

Tabakoa atera nuen. Neska-lagun kubatarraz galdetu nion.

— *Lilian izena din. Lili.*

— *Laster izango haiz Habanan.*

— *Faltan hartuko ditinat gure telesail-gauak.*

Bestetik, Sarriguartek nabarmendu du Arrosa Sareko *Zebra* bidea magazineko esatari ohiak, Nekane Zinkunegik, noka egin ohi zuela zenbait emakumerekin (kolaboratzaileak eta elkarrizketatuak).

Baina ba al dago aukerarik hitanoa erabili eta aldi berean genero markei iskin egiteko? Hau da, jende talde misto bati zuzentzen gatzazkionean edo pertsona baten genero identitatea ezagutzen ez dugunean, adibidez, erabil adegakegu genero marka neutrorik?

Goiena aldizkarian barrak erabili dituzte: "Herriko hikan egin nahi badon/k ikastaro aproposa dun/k hau". Gaztelaniaren erabilera ez-sexista buruzko gidaliburuak barrak saihestea gomendatzen dute (trabajadores/as), irakurketa oztopatzen dutelako. Guk ere ez dugu formula hori gustuko.

Antton Olariaga marrazkilariak *Berriako Zakilixut* komiki tiran erabiltzen duen estrategia nabarmendu du Amelia Barquinek: atzizki femeninoa eta maskulinoa lotu eta hirugarren atzizki bat sortzea, '-nk':



Inspirazio horri tiraka, ETB1-eko 'Wazemank' saioaz gozatu genuen. *Gaztezulo* aldizkarian ere '-nk' atzizkia erabili dute, esaterako: "Ika Mizka. Eta hik? Nola bizi dunk euskarara?". Zer iruditzen zaizue? Hitanoa erabiltzen duzuenok erabiliko zenukete formula hori egunerokoan?

Bestalde, euskaldun gehienok elebidunak izanik, tentuz ibili behar dugu, erdarazko kalkoen ondorioz sortzen diren erabilera desegokiak saihesteko. Adibidez, bikote ize-zen orde, maskulino orokortzaile faltsuak erabiltzen dira. Euskaraz ez da egokia eta, horrez gain, erabilera sexista argia da.

| FORMA DESEGOKIAK | FORMA JATORRAK |
|------------------|------------------------|
| Aitak | Gurasoak |
| Semeak | Seme-alabak |
| Anaiak | Neba-arrebak |
| Erregeak | Errege-erreginak |
| Lehengusuak | Lehengusu-lehengusinak |

Esan beharra dago gaztelaniaz ari garenean erabili ohi dela sarriago "aitak" eta "aititeak" era orokortzailean. "Voy a comer con mis aitites". "Mis aitas viven en Portugalete"; Arraro samarra da "Voy a comer con aitite y amama" edo "Mis gurasos viven en Portugalete" entzutea, baina hori da erabilera egokia. Edu Lartzagurenek *meme* honen bidez azaldu du Twitter-en:



2 GAIA

Zalantza bat sor daiteke: ordena horretan, zergatik lehenesten dira gizonak izendatzen dituzten terminoak? Zergatik ez alaba-emeak edo lehengusina-lehengusuak? Amelia Barquinek gogora ekarri du Begoña Muruagak 1993an proposatu zuen irizpidea: silaba gutxien dituen hitza jarri behar da lehenengo. Hori dela eta, *neska-mutilak* esaten dugu. Baina abisu bat gehitu du Barquinek: silaba kopurua berdina denean, maskulinoa lehenengo jartzeko joera dago (*aitite-amama*). Joera hori apurtzea eta ordena tarkeatzea proposatzen dugu guk. *Zergatik ez amama-aititeren etxera bazkaltzera joan?*

Erdaren eraginaren beste antzeko adibide bat: adjektiboetan eta izenean generoa markatzea. Esaterako, "ministro" eta "ministra" esatea, "presidentea" eta "presidenta" edota, hizkera informalean "tipo" bat "majoa" eta "tipa" bat "maja" dela esatea. Gogoan izan behar dugu, euskaraz, neutroak direla "ministro" eta "presidente". 'Majo/maja'-ren kasuan, gaztelaniazko kalko bat da, beraz, "jatorra" egokiagoa da.

Azkenik, euskararen erabilera ez-sexistari buruzko gidaliburu guztiak agertu dira -sa atzizkiaren kontra, bereziki 'alkatesa' eta 'aktorea' terminoen kontra (horiek erabiltzen baitira gehien). Hona hemen Marije Apodakaren azalpena:

Atziki hori daramaten hitz gehienak maileguak izaten dira eta zubereraz soilik erabili izan den atzikia dela esan daiteke. Euskara batuan -sa atzikia ez da beharrezkoa, erabilera mugatu behar da. Testuinguruak sexua argituko du. Alkatesa, medikusa, idazlesa, bertsolarisa, alarguntsa ... Euskaltzaindiak hauexek onartu ditu: *printzesa, abadesa, jainkosa, kondesa...* Sexua zehaztu nahi bada, *emakume* edo *gizon* izenak erabil daitezke. Baina, kontuz, tratamendu berdina eman! Askotan emakumeekin egiten da soilik: *bertsolaria* eta *emakume bertsolaria*, lehenengoa gizoni bakarrik legokiekeen bezala, emakumea denean berariaz adierazi behar da.

Euskal Herriko hegoaldean, alkatearen emazteari deitzen zitzaion 'alkatesa', gaztelaniaz bezalaxe. Gaztelaniaz, RAE-k definizioa zabaldu zuen, eta, orain, 'alcaldesa' hitzak bi esanahiak ditu: e' *emakume alkatea* zein 'gizonezko alkatearen emaztea' (RAE-k, gainera, oharra gehitu zuen: bigarren esanahi hori kolokiala dela eta gutxi erabiltzen dela adieraziz). Euskaraz, aldiz, Euskaltzaindia eta Elhuyar hiztegiek ez dute 'alkatesa' inondik inora onartzen, ez eta 'aktorea' ere.

Azkenik, itxurazko bikoteetan eta hutsune lexikoetan nabaritzen da sexismoa. Mari-je Apodakaren azalpen eta adibideak erabiliko ditugu:

Itxurazko bikoteak: Sexuaren arabera esanahia aldatzen duten hitzak, gehienetan emakumeen kasuan esanahi kaltegarri edo negatiboak hartzeko. Izen beraren maskulinoa eta femeninoa konparatuz, nabarmenak dira bien arteko aldeak. Parekotasun eza gertatzen da, atzizki berdina izanda baina sexua aldatuta. Hiztegia hartuta "eme" eta "andre" errotik datozen hitzak eta "giza" eta "gizon" errotik datozenak ez dira pareak. Horrela, lehenengoetatik konnotazio sexual nabarmeneko hitzak eratortzen dira.

Adibideak:

Gizalege (begirunea) / emalege (hilekoa)

Gizabakar (norbanakoa) / emabakar (monogamoa)

Gizatxar (gaiztoa) / ematxar (prostituta)

Gizontasun / emetasun

Andraketa, emagaldua, emakoitasun...

Gizabide, gizalan, gizatiar...

Hutsune lexikoak: hitz batzuk erro maskulino edo femeninotik sortzen dira eta ez dute baliokiderik beste sexuarentzat.

Adibideak: *Andereño, Andretan ibili, Anaitasuna, Anaiarte, Gizatiar, Emaro, Amalur.*

Emakumeekin soilik erabiltzen diren hitz iraingarri eta misoginoak ere aipatzen ditu Apodakak: *Zoranga, mamala, txatxala, urdanga, mari-gizon, mari-zikin, mari-maistra.*

Agian horrekin lot genezake 'ama hizkuntza'-ren ordez 'lehen hizkuntza' erabiltzeko gomendioa. Itziar Idiazabal EHuko UNESCO katedraren arduradunak *Tribuaren Berbak* saioan azaldu zuen ama ez dela derrigorrez izaten hizkuntza transmititzen duen bakarra. Hau da, 'ama hizkuntzak' estereotipo sexistei lotutako kutsua dauka.


Hutsune lexiko esanguratsu bat 'plazagizon' da. *Euskaltzaindiaren hiztegiaren arabera*, hauxe da 'plazagizona': "Jendaurrean edo jendartean askotan aritzen eta trebeki moldatzen den gizonezkoa". Baina hiztegiak ez du 'plazandre' onartzen. 'Plazagizon' definizioan ematen duen adibidea esanguratsua da: "*Bertsolariak, ona izango bada, plazagizon ere izan behar du*".

2 GAIA

Adibide horretan jauzi semantiko bat topatu dugu. Zer da jauzi semantiko bat? Bada, hauxe: esaldi bat printzipioz neutroa edo orokortzailea den hitz batekin hastea, eta, bat-batean, gizoni soilik erreferentzia egitea. Hona hemen Amelia Barquinen adibide ospetsua: "Gazteen aisialdia errutina hutsa da: telebista ikusi, tragoak hartzera joan, neskekin ligatzen saiatu..."

"Bertsolariak, ona izango bada, plazagizon ere izan beharko du". Ulertzen al duzue zergatik dagoen jauzi semantiko esaldi horretan? Bertsolaria neutroa izanda, hasieran pentsatuko dugu emakume zein gizon bertsolariez ari dela. Baina emakume bat ezin da plazagizon izan, beraz hor frogatzen da esaldi androzentrikoa dela.

Euskaltzaindiaren hiztegiak ez du 'plazandre' onartu; Elhuyar hiztegiak, ordea, bai:



Baina ohartu al zarete kasu honetan definizioak simetrikoak izan arren, adibideetan ere jauzi semantikoa dagoela? 'Plazandre'-ren adibidean argi dago emakumeei soilik egiten diela erreferentzia. Baina 'plazagizon'-en kasuan, berriro ere 'Pilotariak, bertsolariak...' hasierarekin, genero markarik egon ez arren, gero gizoni soilik egiten die erreferentzia. Nola konponduko zenukete? Guk bi aukera ikusten ditugu:

✕ Pilotariak, bertsolariak... plazagizon eta plazandreak dira

Edo

✕ Gizonetako pilotariak eta bertsolariak... plazagizonak dira

Feministek 'plazandre' hitzaren potentzial sinbolikoa indarrez aldarrikatu dute, espazio publikoa gizonen esparrua delako arau patriarkala apurtzen duelako. Horregatik, Donostiako alderdi politiko eta elkarte feminista 'Plazandreak' deitzen da.

Uxue Alberdik bere burua plazandretzat daukala esan zuen euskararen erabilera ez-sexistari eskainitako *Tribuaren Berbak* saioan. Bide batez, entzun genero markei buruz hasieran kontaktzen duen pasadizoa:



Tribuaren Berbak saioan, Ines Osinagak, Gose taldeko kantari eta trikitilariak, bere burua "plazandretzat" duela adierazi zuen, eta azalpen interesgarria eman, emakumeak ahalduz gain, etxekoandre zein plazandreen eskubideei buruz hitz egin baitzuen (31'30" minutuan aurkituko duzu):

2 GAIA



2.3. EMAKUMEEI ETA GIZONEI TRATAERA SIMETRIKOA EMATEKO GAKOAK

Baina hizkuntza baten ezaugarrien eta Akademiaren eta hiztun komunitateen erabaki eta joerez harago, gure inguruko hizkuntza guztietan pertsonengana zuzentzen garenean, modu asimetrikoan aritu gaitezke, sexismoaren ondorioz. Berdintasunaren aldeko gizartearen eraldaketan parte hartu nahi badugu, funtsezko pausoa da asimetria horiek identifikatzea eta deuseztatzea. *Berriaren Estilo Liburuak* zera zehazten du emakumeei eta gizonei tratatu simetrikoa emateko konpromisoaren harira:

- × Familia loturen aipamen alferrikakorik ez da egingo. Albisteari estu loturiko datua baldin bada bakarrik aipatuko da ahaidetasuna edo harreman pertsonala. Dena dela, betiere izen-abizenak idatziz identifikatuko dira pertsonak, eta sekula ez familia lotura hutsekin ('Putin eta bere emaztea atzo iritsi ziren Parisera').
- × Estereotipoak eta topikoak saihestu beharra dago. Bai elkarriketatuei eginiko galderetan, bai albisteari emaniko tratamenduan, kazetariak baztertu egingo ditu hala genero rolei loturiko galdera topikoak nola estereotipoak sendotzen dituzten klixeeak ('Kubaz mintzatzean, musika, paisaia eta neska ederrak datozkigu burura').

× Albisteetako protagonistak aipatzeko, irizpide berak erabiliko dira beti, aipatua gizona izan zein emakumea izan. Hala, lehen aldian izen-abizenak idatziko dira, eta hortik aurrera, abizena bakarrik.

✔ Gurrutzagak ere ale politikak utzi zituen, Mendiluzek bezala, baina Lujanbioren eta Maiaren lana izan zen biribilena.

✘ Guztira 13,5 milioi lagunek ikusi zuten Barbara Walters kazetariak Hillaryri eginiko elkarrizketa.

✔ Guztira 13,5 milioi lagunek ikusi zuten Barbara Walters kazetariak Hillary Rodhman Clintoni eginiko elkarrizketa.

Emakumez mintzatzean, ez dago zertan genero aldetik markatua den hitzik erabili, gizonari buruz ari garela pareko hitzik erabiltzen ez bada. Hala, gogoan izan gazte bat mutil bat nahiz neska bat izan daitekeela, eta abar.

✘ Aitor Perez motz aritu zen, baina Alize Mendiburu andreak osatu zuen.

✔ Aitor Perez motz aritu zen, baina Alize Mendiburuk osatu zuen.

Izen-abizenei dagokienez, hedabideetan gero eta gehiago zaintzen da simetria. "Urkullu eta Mendia erreforma fiskala aldatzeko prest"; halako titularrak dira ohikoena (eta ez 'Urkullu eta Idoia Mendia...'). Baina hizkera ez formalari erreparatuz gero, joera horretaz jabetuko gara. Pentsa egunerokoan nola izendatzen dituzun zure aktore, kirolari edo idazle kuttunenak.

Beste asimetria ohiko bat, 'gizon/neska' da. Google-n honako froga hau egin dugu:

- × 'Athletic-eko gizonak': 23.600 emaitza inguru
- × 'Athletic-eko mutilak': 11.000 emaitza inguru
- × 'Athletic-eko emakumeak': 18.400 emaitza inguru
- × 'Athletic-eko neskak': 20.500 emaitza inguru

Generoa soilik emakumez mintzatzean markatzeko joera dago (esaterako, gizonari 'Athleticeko jokalariek' deitu eta emakumeei 'Athleticeko neskak'); *Berrian*, berriz, praktika egoki hau topatu dugu:




2 GAIA

2.4. IRUDIAR: ESTEREOTIPOAK ETA ASIMETRIAK

Pantailez inguratuta bizi garen honetan, irudien indarra are eta nabarmenagoa da. Egunerokoan jasotzen dugun irudi parrastan (publizitatea hamaika euskarritan, sare sozialak, hedabideak...), zenbait produktuk estereotipo sexistak indartzen dituzte, eta beste batzuk, berriz, iraultzen. Irudien bidez jendartearen arreta deitzeko bi estrategia nagusi nabarmendu ditzakegu: estereotipoa eta transgresioa. Tamalez (gure ustez) estereotipoa da estrategia ohikoena: gure adimenak erraz prozesatuko duen irudi arketipiko bat erabiltzen da, gure aurreiritziak indartuko dituena eta jendartearen aniztasuna islatzen ez duena.

2011. urtean Euskaltelek zuntz optikoa saltzeko kanpaina bat plazaratu zuen. Gaztelaniazko leloa, hauxe: 'Los que viven en internet recomiendan Euskaltel'. Protagonistak: mutil estereotipatuak, *geek*-ak eta *hackerrak*. Hau da, androzentrismoa nabarmena zen hizkuntzan zein edukian. Badirudi Interneten bizi direnak gizonezkoak direla.

'Interneten bizi direnek Euskaltel gomendatzen dute!' iragarkiaren euskarazko leloak ez dauka genero markarik, baina spotaren protagonistak eta ikuspegia berdinak ziren.



Interneteko hainbat erabiltzailek, gizonek zein emakumeek, kanpaina kritikatu zuten. Gizonek, estereotipatu egin zituztela sentitu zutelako, eta emakumeek, berriz, ikusezina zirelako. María Ptqk-k *meme* hau eskegi zuen bere blogean:



Ez dakigu ea kritika horiek zerikusirik izan zuten, baina urte erdi geroago, beste pertsonaia bat gehitu zuten kanpainara, 'amona aditua':



Estereotipoaren estrategiaren aldean, aurreiritziak apurtzen dituen pertsonaia bat, alegia... Baina benetan al da eraldatzailea apustu hori? Logika bera mantentzen zuen iragarkiak. Emakume bakar hori ez zen gizonak bezalakoa. Amona hori Interneten bizi dela sinesgarria al da? Adineko emakumeen inguruko estereotipoak apurtzen ditu, ala indartzen?

2 GAIA

Gure ustez, irudi komikoa da, ez delako sinesgarria. Ustez bateragarriak ez diren bi estereotipo nahasten ditu, emaitza komiko bat lortzeko. Imaginatzen al duzu Internet egunero erabiltzen duen adineko emakume bat iragarki baten protagonistatzat? Amona adituarekin beste bideo batzuk egin zituzten, eta bideo horietan rol tradizional bati loturik agertzen zen: zaintzailearen rolari. Ez da internet zalea, gazteez kezkatzen den amona xarmanta baizik.



Hori gutxi ez, eta gaztelaniazko bertsioko maskulino orokortzaileari eutsi zion:

TÚ TAMBIÉN PUEDES SER EXPERTO EN INTERNET

ELIGE LOS MEGAS QUE NECESITES
5M | 24M | 50M
INTERNET CON FIBRA ÓPTICA

DESDE **24'9€** /MES

euskaltel
es (más 1)

www.euskaltel.com

EHUren aurreko gidan, irudien erabilera sexista dela-eta, honako joera hauek aipatzen dira:

✕ Genero-rol eta estereotipoak indartzea, gizon- eta emakume-estereotipo bazterzaileak oinarri dituen jendarte-eredua finkatzea: irudi onak eta txarrak, irabazleak eta galtzaileak, ausartak eta koldarrak, ederrak eta itsusiak, sendoak eta ahulak...

✕ Emakumeak hartu eta erabiltzeko objektu gisa aurkeztea.

✕ Emakumeak "txikiak" direla sinestaraztea.

✕ Emakumeak mezu eta albiste negatiboen bidez biktima bihurtu: tratu txarrak, hilketak...

✕ Informazio orokorreko berrietan emakumeek protagonismorik ez izatea (haien kontrako bortzakerien kasuetan izan ezik, baina horietan ere emakumea biktima pasiboa da).

✕ Emakume-gorputza desio-objektu hutsa dela sustatzea.

Azken puntu hori da publizitatean eta hedabideetan nabarmenen agertzen dena eta gehien salatzen dena, hau da, emakumeen gorputza eduki bat apaintzeko edo publikoaren arreta erakartzeko erabiltzea. Kazetaritza digitalaren kasuan, Euskal Herriko hedabide irakurrienen azalean Irina Shayk modeloa agertzen da. Zein da albistea? Bada, transparentziaz jositako soineko bat jantzi duela. Estrategia hori androzentrikoa eta heterosexista dela diogu (egunkari baten irakurleria maskulinoa eta heterosexuala delako premisatik abiatzen baita), baina, antza denez, estrategia eraginkorra da, emakumeen gorputzek emakume irakurleen arreta ere deitzen dutelako.

Barakaldoko Euskaltegiak kexa bat jaso zuen iragarki honengatik:



2 GAIA

Zineman zein publizitatean, emakumeen gorputza zatika agertzen da maiz. Erotismoarekin lotzen diren gorputz atalak agertzen dira batez ere: ezpainak, hankak, bularra... Horren bitartez, gizon heterosexuatzat hartzen diren irakurleen arreta lortu nahi da.


Irudi bat berdinzalea edo sexista ote den jakiteko estrategia erangikor bat, inbertsio araua erabiltzea. Begiratu *Diario de León* egunkarian ikasturte horretako ikasle bikainenari egindako argazkia:




Zure iritziz, ikasleari pose hori proposatuko ote liokete mutil bat balitz edo feminitatearen kanonak betetzen ez dituen neska bat balitz?

Hizkeran gertatzen diren asimetria sexistei buruz aritu gara; bada, irudien arloan ere zaindu behar dugu simetria, eta, horretarako, joera ez kontzienteez ohartu behar dugu. Pilar López Díez (2005) kazetaritzari eta sexismoari buruzko adituak TVEko albistegiak

aztertu zituen, eta gizonak eta emakumeak grabatzeko moduari erreparatuta, asimetria teknikoak topatu zituen. Gizonak grabatzeko, kamerek angelu kontrapikatua erabiltzen zuten pikatua baino askoz gehiago, eta emakumeen kasuan, berriz, alderantziz egiten zuten. Angeluaren erabilpen horrek karga sinboliko esanguratsua dauka, kontrapikatua pertsonen figura handitzen baitu, eta pikatuak, aldiz, txikitzen. Txikitzeak, batzuetan, biktimizazioarekin du zerikusia, eta beste batzuetan, aldiz, erretratutako pertsonaren gorputza argaltzea da helburua. Pentsa: neska askok, (gehienbat) *selfie* bat egitean, keinu hori egiten dute, besoa gorantz altxa eta argazkia goitik behera ateratzeko:



Aurrekoa irudikatzeko, azter itzazu *Eitb.eus*-en albiste oso antzekoetarako erabilitako argazki oso ezberdinak:



2 GAIA

Twitter-i buruzko albistean, argazkiaren protagonista Twitter-eko goi kargu bat da, gizonetzkoa. Angelu kontrapikatuak bere gorputza handitzen du, eta boterea ematen dio. iCloudi buruzko albistean, ordea, emakume hori ez da enpresako goi kargu bat, pirateoaren biktima izandako aktore bat baizik. Angelua frontala da, baina plano oso itxia da, erotismoarekin lotutako ezaugarri fisikoak nabarmentzen dituena: begiak, ezpainak, ilea.

Orain dela gutxi arte, horrelako argazkiak erabili ohi ziren indarkeria matxistari buruzko albisteak irudikatzeko. Ikus dezakegu nola, askotan, angelu pikatuak areago indartzen duen biktimizazioa:



Hurrengo adibidea, aldiz, praktika on bat iruditzen zaigu. Egiptoko emakume hauek subjektu politiko bezala agertzen dira, nazioarteko politikari buruzko albiste bat irudikatzeko. Kontrapikatuak indarra transmititzen du:



Planoez eta angeluez aritu gara, baina badago aztertu eta zaindu beharreko beste osagai bat: irudiaren konposizioa. Irudia androzentrikoa izango da baldin eta gizona erdigunean kokatzen badu; eta sexista izango da emakumea txikitzen badu, edo gizonaren atzean ezkatutzen... Erabaki horien arabera, irudiaren interpretazioa aldatuko da.

Hona hemen bi adibide:



Aenako iragarkian, gizona kamerari begira dago, zuzenean. Emakumearen gorputza gizonaren atzean desagertzen da, eta umeari begira-begira dago. "Yo aparco mi coche en el parking de Aena". "Y tú, ¿sabes viajar?". Zuen iritziz, zein ari zaizue esaldi hori botatzen, zein ari da ikuslea interpelatzeko eta, ondorioz, zein da iragarkiaren subjektua?

2 GAIA



Adibide hau argazkilarik bikote bati buruzko artikulu bat da (elkarrekin lan egiten dute eta ezkontuta daude): Michèle eta Michel Auer. Kasu honetan, gizona aurrerago dago, haren figura handiagoa da, guri begira dago; emaztea, ordea, atzean dago berriro ere, erdi ezkutatuta eta senarrari begira. 'Gizon handi baten atzean beti dago emakume handi bat' esaera sexista datorkigu burura. Irudi berdinzale bat dela uste al duzue? Biek talentu eta ospe berbera daukatela pentsatuko zenukete? Emakumea artistaren rolean agertzen dela esango zenukete? Ala emaztearen rolean agertzen dela?

ARIKETA

Azter ezazu zuntz optikoa saltzeko beste iragarki honen konposizioa. Zure ustez, nor da iragarkiaren protagonista? Zer bezero potentzial erakarri nahi du? Nola aldatuko zenuke konposizioa irudi berdinzale bat sortzeko?



Komunikazio ez-sexista egiteko erronkan, funtsezkoa da emakume anitzen ahal-duntzea islatzen duten irudiak erabiltzea eta rol eta estereotipo sexistak apurtzen edo iraultzen dituzten irudiak erabiltzea. Bukatzeko, hona hemen gustuko dugun irudi bat (zenbat aldiz ikusi ditugu gizona lankideen arteko jarrera samurrak hedabideetan?)



Irudi sexistak nonahi topatuko ditugu, baina irudi berdinezaleen eta eraldatzaileen premia daukagu.

3

SEXISMOTIK HARAGO: HIZKERA INKLUSIBOA

Sexismoa ez da hizkuntzan eta hizkeran eragina duen diskriminazio sistema bakarra. Hizkuntzaren erabilera begirada kritikoz aztertzen badugu eta hizkeraren bidez berdintasuna eta aniztasuna ikusarazteko apustua egin badugu, ezinbestean erreparatu behar diogu beste botere sistemei: arrazakeriari, heterosexismoari, transfobiari eta kapazitismoari, besteak beste.

Orain arte, komunikazioan emakumeak ikusaraztearen beharraz aritu gara, baina zer emakumeri buruz ari gara? Zer emakume ahazten dugu? Androzentrismoak gizona jartzen du erdigunean, baina ez edozein gizon: zuria, heterosexuala, desgaitasunik gabekoa... Hori ere argi izan behar dugu.

Errealitate berriak izendatzeko, hitz berriak behar ditugu. Gure gizartean gero eta gehiago ikusten da aniztasuna; beraz, gizon zuri heterosexual eta desgaitasunik gabeko subjektu horretatik at geratzen diren pertsonen diskriminazioa eta indarkeria bizi dute. Ikuspegi interseksionalak aintzat hartzen ditu botere sistemen arteko harreman konplexuak. Genero ikuspegia duen komunikazioan interseksionalitatea txertatzea erronka garrantzitsua da eta hori izango da hirugarren gai honen xedea.

3.1. GENERO BINARISMOA



Argia aldizkariaren
irudia

3 GAIA

“Gaur egun, bikote edo pertsona batek ume bat izan behar duenean, mundu guztiak galdetzen duen lehenengo gauza, «neska, ala mutila izango da?» da. Guztiek erantzun beharko luketena gauza honako hau izan beharko litzateke: «ez dakit, oraindik ez daki hitz egiten». Elena Gorbeñaren artikulua batean irakurri dugu hausnarketa hori.

Haur txikiei ematen diegun trataerak argi islatzen du genero binarismoa. Dendek bi koloretan sailkatzen dituzte arropak, mantak, izarak: arrosa edo urdina. Haur txikien androginiak helduen mentalitate hertsia asaldatzen duenez, zer egiten dugu, bada neska txikiak belarritakoekin ‘markatu’. Gogoan izan, ikuskera androzentrikoaren arabera, gizonezkoa dela subjektu unibertsala, eta emakumea, berriz, ‘bestea’ dela. Ezarritako generoaren arabera, jendea desberdin komunikatuko da haur txiki horrekin (esaterako, neskari ‘printzesa’ deituko diote, eta mutilari, berriz, ‘txapeldun’, eta ahots doinu ezberdinak erabiliko dituzte), eta genero rolei lotutako jarrerak antzematen saiatuko dira. Bizpahiru urte dituenean, haur horrek bere genero identitatea garatuko du, genero gizarteratzeak baldintzaturik. Genero binarismoak gorputz eta sentipen anizkoitzak ezkatutzen ditu, eta pertsona transexual eta intersexualen (*Berriaren Hiztegiaren arabera*, “gizonen eta emakumeen ezaugarri fisiko sexualak, bienak, berez garatu dituen”) esperientziak ukatzen ditu. Are gehiago, guztion askatasuna mugatzen du, eskema binario horretatik ateratzen garenean zigortu eta epaitu egiten baikaitu.

‘Genero polizia’ zer den, bada, egunerokoan denok praktikatzen dugun bigilantzia, pertsonak txikitatik genero rola beteko dituztela bermatzeko. Binarismoarekin apurtzeko grina horrek muga instituzionalekin ere topo egiten du.

Genero bereizkeriaren araberrako rola ezbaian jarri dituzte feminismoak eta LGBT mugimenduak. Azken hamarkadan, transexualitateaz gainera, genero ez binarioak ere ikusarazi dituzte. Pertsona transexualei trabak ipintzen zaizkie oraindik ere erregistroan izena aldatu nahi dutenean; esaterako, Espainiako Genero Identitate legeak bi baldintza ezartzen ditu: bi urtez hormonak hartzea eta psikiatra batek genero disforiaren diagnosis egitea. Genero markarik gabeko izenek egoera horiek erraztuko lituzkete eta, are gehiago, bereizkeriaren aginte hori txikitatik malgutzeko balio lezakete. Euskal Herrian azken urteotan badago adibidez Amets, Lur edo Hodei izenak haurrei jartzeko ohitura, sexuan erreparatu gabe. Baina Espainiako Erregistro Zibilarren legeak ezartzen du izenak ezin direla generoari dagokionez ambiguoak izan. Euskaltzaindiak lege horren aginduari erantzun eta, 2001etik aurrera, sexuaren arabera bereizi ditu izenak, ordura arteko ambiguoetasunak ezabatuz.

Argia aldizkariak euskal izendegiaren inguruko erreportaje eta artikulua kritikoa publikatu ditu. Axier Lopezek lehenengo pertsonan kontatu zuen:

Orain bi hilabete jaio zen Lur. Artean izen ofizialik ez bazuen ere, Lur izan da burua mundu honetara atera aurretik eta ondoren.

Haurdunaldian ez genuen bere hanka-tartearen berri eduki nahi izan. Genitalen forma bigarren mailako kontua iruditzeaz gain, gure burua eta ingurua ez genituen aurrez baldintzatu nahi genero jakin bati dagokion klixeeekin. Bagenekien horiei, nahitaez, jaio bezain pronto eutsi beharko geniola, beraz, zertarako aurreratu. Eta gainera, naturak gordetako sorpresa gehituz, haurdunaldiaren abentura ederrari amaiera politagoa eman genion. Erditzea umeari izena jartzea baino errazagoa izan zen, ordea.

Egun, ospitalean bertan aukera dago alaba-seeen izena erregistrora bideratzeko. Bi aukera dauzkazu: gurasoak erroldatuta dauden herriko epaitegira ala umea jaio den tokikora bidaltzea eskaera. Gure kasuan, Zumaiaiko Bake Epaitegira eskaera bidali eta ordubetera jaso genuen hango funtzionarioaren deia: “Euskaltzaindiaren izendegian Lur ez da mutilentzako izenen artean agertzen, beraz beste bat aukeratu behar duzue datozen hiru egunetan”. Ondorengo egunetan Zumaiaiko funtzionarioarekin aurrez aurre egondako alditan hesi berarekin egin genuen topo. Baietz, ulertzen zuela arazoa. Berak ere Lur izeneko mutil batzuk ezagutzen dituela, ez zaiola egoera normala iruditzen, baina... Euskaltzaindiak kontrakoa dioela eta bera legea betetzeko eta betearazteko dagoela. Gipuzkoan azken hilabeteetan erregistratutako Lur zakildunen zenbait erreferentzia ere aurkeztu genion, baina “ezin ditugu kontuan hartu, pertsona horiek akatsak dira”. ‘Akats’ batekin gu oso pozik biziko ginela adierazi bagenion ere, aurrekarien argudioa baztertu zuen.

Euskaltzaindiko Onomastika batzordeak hauxe erantzun zion Argiari:

“Euskaltzaindiak, hizkuntza akademia guztiek egiten duten moduan, erabaki proposamenak egiteko hitzunen erabilera aztertzen du, eta ez da, zentzuzkoa den bezala, eztabaida politikoetan sartzen”. Idatzian dio ikertutako dokumentuetan jatorri askotako izenak agertzen direla, batzuk bertakoak, euskarazkoak, eta gehienak kanpokoak. Eta argitzen du: “baina ez dago emakumeak eta gizonak, biak, izendatzeko balio duen izenik”. Ondoren, legeari egiten dio erreferentzia eta esaten du Euskal

3 GAIA

Herriko Hegoaldean, Portugalen, Italian, Alemanian, eta 1996 arte Frantzian, sexua argi bereizi behar dela pertsona izenetan. Euskaltzaindiaren ustez, “gaur egun sexua dela-eta arazoa sortzen duten izenak banaka batzuk baino ez dira: Aiuri, Maren, Amaiur, eta hein apalagoan beste gutxi batzuk. Inoiz jendea kexu da, banaketa hau sexista delakoan, baina kontrako eskabideak ere jaso ditugu: semeari edo alabari jarritako izena beste sexua dutenei debekatu behar zaiela uste dutenenak, alegia”.

Euskaltzaindiak sexua bereizteko emandako irizpideak aipatzen ditu *Argiako* erreporta-jeak. Esaterako, “gizon izen bati -a eransteak emakumezko izen bihurtzen du”. Hala, gerta-tu izan da neska txiki bati ‘Zuhaitz’ deitu nahi izatea eta Erregistro Zibileko funtzionarioak ‘Zuhaitza’ izan behar duela erantzutea.

2016. urtean *Izena eta izana ezbaian. Euskal izendegia eta sexuaren arabera bereizketa gida praktikoa* aurkeztu zuten Euskal Herriko Bilgune Feministak eta Emaginek; helburua: izendegiaren eta binarismoaren inguruko gogoeta piztea eta desobedientzia sustatzea. Gi-daren egileek azpimarratu zuten, izena ezinbesteko tresna da nortasuna eta identitatea garatzeko, eta, bestalde, garaiaren arabera egokitzen eta moldatzen da hizkuntza. “Izaera individuala eskaintzeaz gain, nortasun soziala ere transmititzen dute” izenek. Idurre Es-kisabel Arratibelen hitzei jarraituz, “izenak sexuen arabera bereiztean jendarteko genero sistema binarioa erreproduzitzen dugu eta bereizketak norbanakoaren eraikuntzan era-gin zuzena du”. Liburuxkak hainbat gurasoren testigantzak biltzen ditu, bai eta izenaren garrantzia azaltzen duten pertsona ez binarioen esperientziak ere.

Desobedientziarako hainbat estrategia ere aipatzen ditu dokumentuak:

- × Ospitaleetako inskripzioak baliatzea, ustez erregistroan baino errazago onartuko dituztelakoan Euskaltzaindiaren araua betetzen ez duten aukerak.
- × Froga gisa izen abstraktuak, fikziozkoak, beste herrialdeetan agertzen direnak edo toponimoak erabiltzea.
- × Espainiako Estatistika Institutu Nazionalen begiratuta froga

daiteke lehendik neskarentzat eta mutilarentzat erabili direla Maren, Aratz eta Amaiur, adibidez.

× Inguruko herriko erregistroetan proba egitea, malguagoa den funtzionarioa aurkitu arte.

× Genero markarik gabeko izenak asmatzea. Gidan jaso dituzte batzuk: Ulia, Haika, Aske, Sen, Iraun...

Aurten, Euskaltzaindiak prentsa ohar bat igorri du, eta Justizia Ministerioari eskatu dio “izenekin malguago joka dezan”. Halaxe dio *Diario Vasco*-ko albisteak:

“Euskaltzaindiak, erakunde aholku emaile ofiziala denez, legeriaren arabera jokatu behar du izendegiari dagokionez, Erregistro Zibilarekiko ahalmenak akademiatik kanpo baitaude. Berez, Akademiak egiten duena zera da: euskararen ikuspegitik onargarri eta erabilgarri izan daitekeen izendegia etengabe moldatzen joan, Onomastika Batzordearen eskutik. Modu horretan eusten die Euskaltzaindiak euskararen batasunari eta euskarak tokian tokiko dituen errealitatei”.

Nolanahi ere, “Euskaltzaindiak badu bere hur-hurreko asmoen artean harremanak gauzatzea Espainiako Justizia Ministerioarekin, euskal izendegiarentzat bestelako bideak asmatzeko eta, euskararen ezaugarriak kontuan hartuz, oraingo legeriaren edukia malgutzeko”. “Helburua gizarteari adi egotea da eta, ahal den neurrian, Akademiaren emaitzak gizartearen premiei egokitzeko”, adierazi du Andres Urrutia euskaltzainburuak.

Horixe izan da hizkuntzaren eta binarismoaren harira Euskal Herrian piztu den kezka nagusia. Gaztelaniaz gero eta indar handiagoa du genero neutro baten beharraren inguruko eztabaidak. Aktibistek, binarismoa apurtzeko, ‘x’ formula proposatu zuten (*alumnxs, amigxs...*), eta, gaur egun, ‘e’ erabiliz ari dira genero neutroa garatzen saiatzen (*alumnex, amigues*). Ozen! LGTB Ligak formula hori gomendatzen eta erabiltzen du.

3 GAIA

Horrela azaldu du Elena Álvarez Melladok eldiario.es hedabidean publikatutako artikulua batean:

Todes, nosotres, elle, amigues, guape. La propuesta de construir un género neutro en -e soluciona muchos de los escollos que las anteriores propuestas dejaban sin resolver: fácil de pronunciar, morfológicamente claro, lingüísticamente económico, socialmente inclusivo. Aunque en redes sociales está muy presente y se usa espontáneamente, está por ver aún si la propuesta arraigará o si el temblor sísmico será demasiado intenso. Al fin y al cabo, no estamos hablando de introducir una nueva palabra (que es un hecho de poca trascendencia dentro de la lógica general de un idioma), sino de un fenómeno que afecta a la estructura de los pilares gramaticales profundos. Es, en cualquier caso, uno de los fenómenos lingüísticos más interesantes de los últimos tiempos y de rabiosa actualidad. (...) El género gramatical con el que alguien se refiere a sí mismo y con el que le tratan los demás sí tiene una inmensa trascendencia social e identitaria. Todes es ejemplo de que, en ocasiones, la realidad desborda la gramática. Y cuando la lengua no dispone (aún) de mecanismos para denominar con exactitud lo que necesita ser nombrado... vendrán los hablantes a crearlos.

Suediako aurrekaria baliagarria zaigu hirugarren generoa defendatzeko. 2015ean, Suediako Akademiak 'hen' izenordain neutroa onartu zuen, "han" maskulinoaz eta "hon" femeninoaz gain.

Suediako akademiak izenorde neutroa sartuko du hiztegian

Mugimendu feministak 1960ko hamarkadan proposatu zuen *ben* izenorde neutroa. Azken urteotan erabilera asko zabaldu da eta Suediako hizkuntza akademiak hiztegian jasotzea erabaki du.

Suedieraz, *han* (bera maskulinoa) eta *hon* (bera femeninoa) izenordeak erabiltzen dituzte eta duela ia 60 urte mugimendu feministak hen neutroa proposatu zuen. Gizon eta emakumez arituta ere, ohikoa zen han izenordea erabiltzea, maskulinoa alegia.

Horri aurre egiteko proposatu zuten hen. Egoera bat baino gehiagotan erabiltzeko balio izan du izenorde neutroak, adibidez: ezezaguna izendatzeko; generoa esateak garrantzirik ez duenerako; transexualak izendatzeko; eta bi generoetako inorekin identifikatuta sentitzen ez denarentzako.

Erabilerak mugimendu feministatik harago zabalitzea ez zuen lortu, baina XXI. mendean transexualek bereganatu zuten. Azken urteotan asko zabaldu da, egunkarrietan, iragarkietan, testu-liburuetan eta interneten erabiltzen da. Politikariek eta irakasleek darabilte. Batik bat gazteak dira *ben* izenordea erabiltzen dutenak. Suediako akademiak hamar urtean behin berritzen du hiztegia eta oraingoan, apirilaren 15ean argitaratuko den hiztegian, mugimendu feministak bidea irekitako izenorde neutroa jasoko du.

Onintza Iruretak *Argiarako* moldatutako albistea

Hizkuntzaren erabilera ez-sexistari lotutako gidaliburu eta egitasmo gehienak emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburuarekin garatu dira, genero binarismoa ezbaian jarri gabe. Estatu Batuetako Princeton Unibertsitateak, ordea, beste bide bati heldu zion, eta, 2016. urtean, talde mistoei edo ezezagunei mintzatzean generiko neutroa erabiltzeko aholkua eman zuen. Esaterako, *policemen* eta *policewoman* erabili ordez, *police officer* gomendatu zuen.

Euskararen kasuan, genero markek ez daukatenez pisu handirik, ez da behar hori agertzen. Danele Sarriugartek kontrako beharra adierazi du: genero disidentzia esplizitatzeko izan daitezkeen zailtasunak.

Hala ere, familia loturretan eskema binarioa oso nabarmena da. Gaztelaniaz hirugarren genero batekin konpon genezake (*hermanes, primes, ties*), baina nire senide bat transgeneroa baldin bada eta bere burua binarismotik kanpo definitzen badu, zer izango da? Semea ala alaba? Osaba ala izeko? Nire ahizpa edo nire neba?

Berriako euskara arduradun Irene Arraratsi galdetu diogu gaiaren inguruan, eta esan digu egunkarian ez dutela horri buruzko erabakirik hartu; hala ere, proposamen propio bat egi-tera ausartu da:

Honela eman ditzakegu familia loturak, binarismorik gabe:
 × Aita edo amaren partez: 'guraso'. Forma ezaguna da, bestela ere asko erabiltzen dena.

3 GAIA

- × *Seme* edo *alabaren* partez: ‘haur’, ‘ume’, ‘kume’, ‘Halakok hezia’,
- × ‘Halakorengandik jaioa’. Forma hauek ez dira hain normalak, baina ulertzen errazak dira behintzat.
- × *Anaia*, *neba*, *ahizpa*, *arrebaren* partez: ‘senide’. Gipuzkeraz erabiltzen dena besteetara ere zabaltzea litzateke.
- × *Izeko*, *izeba*, *osabaren* partez: ‘arbaso’. Normalean, aitona-amonen goragoko aurrekoa izendatzeko erabili izan da. Esanahia aldatzea ekarriko luke.
- × *Aitona-amona*, *aitita-amama*, *aitatxi-amatxiren* partez: ‘asaba’. Orain zaharkitu geratu da, baina lehen hori esateko erabiltzen zen; beraz, lehengoa berriz piztea litzateke, ez besterik.

Guk beste ideia bat gehituko dugu: ingelesez eta gaztelaniaz trans komunitatean *mapa* proposatu da (*mama-papa*) hitzak nahastuz, guraso transgeneroa izendatzeko. Agian *Transparent* telesaila ikusi duzue: seme-alabek *mapa* deitzen diote Moira protagonistari, hark transexuala dela onartzen duenean. Nola esango zenuke euskaraz? *Amaita? Aitama?*

Esan bezala, errealitate berriak izendatzeko hitz berriak behar ditugu. Transexualitatearen inguruan nahaste-borraste handia somatzen dugunez, hurrengo atalean argibide gehiago topatuko dituzu:

3.2. NOLA IZENDATU TRANS PERTSONAK?

2013. urtean, Andaluziako Transexualen Elkarteak jarritako kexa bat onartu zuen Espainiako Kazetari Elkarteen Federazioak (FAPE): emakume trans bat izendatzeko maskulinoa erabili zuten 11 hedabideri albisteak zuzentzeko agindu zien. Kasu latza zen, emakume trans hori bere gizonetako bikotekideak erail baitzuen. “Muere apuñalado un joven” edo “un joven transexual” titularrak jarri zituzten egunkariek, besteak beste. FAPEk onartu zuen trataera horrek bi ondorio zituela: batetik, umiliagarria zela bizi bitartean hainbeste borrokatutako identitatea hil eta gero ez onartzea, eta, bestetik, ezinbestekoa zela hildakoa emakume bat zela esatea, indarkeria matxista kasu bat zela argi uzteko. FAPEren ustez, egokia zen emakume hori transexuala zela adieraztea, “gizarte honetako gaitz horrek [genero indarkeria] identitate femenino guztiek jasaten dutela ezagutzera emateko”.

Transexualitatea ez da gertakari berri bat. Euskal Herrian badugu erreferente historikorik, hala nola Katalina de Erauso (irakur ezazu Onintza Iruretaren gogoeta, bibliografian aurkituko duzu erreferentzia). Hala ere, azkenengo hamarkadan aurrerapauso handiak eman dira trans identitateak ikusarazteko eta despatologizatzeko bidean.

Trans pertsoneri buruz ari garenean, maiz egin ohi ditugu horrelako okerrak:

✗ Jaiotzean ezarritako sexuaren arabera izendatu, haien genero identitatea errespetatu ordez. Komunikazioari begira, pertsona bat emakume sentitzen bada, emakumea da, nahiz eta erregistro zibilean beste datu bat agertu.

✗ 'Transexual', 'transgenero' eta 'trabesti' hitzak nahastu.

Berriaren Estilo Liburuak horrela definitzen ditu:

TRANSGENERO: Bere ezaugarri biologikoengatik jaiotzean ezarri zaion generokoa ez baizik bestekoa sentitzen dena, edo ez genero tradizional batekin eta ez bestearekin identifikatzen ez dena.

TRANSEXUAL: Bere ezaugarri biologikoengatik jaiotzean ezarri zaion generokoa ez baizik bestekoa sentitzen dena. Laburturik, 'trans'.

TRABESTI: Egunerokotasunean erabiltzen duen generoarekin bat ez datorren janzkera erabiltzea gustuko duena. Janzkera hori ez da egonkorra izango bere bizitzan eta ez du bere sexualitatearekin zerikusirik izango.

Euskaltzaindiaren Hiztegian 'trabesti' hitza baino ez da agertzen, eta kezkarria iruditzen zaigu. (RAEk 'transexual' onartzen du, 'transgénero' ez). LGTB mugimenduak 'trans' hitza erabiltzen du binarismoarekin apurtzen duten identitate multzo horiek biltzeko.

✗ Norbait 'transexuala' dela esatea, eta kito. Chrysallis Elkarteak azaldu duenez, 'transexual' izenondo bat da, hortaz, izen baten atzean joan behar du (*pertsona, haur, gazte... transexuala*). Kontuan hartu behar dugu, betiere, pertsona hori transexuala dela esateko arrazoirik ote dagoen. Esaterako, 'Cassandra Vera ikasle transexualari urtebeteko espetxealdia ezarri diote bere Twitter kontuan Carrero Blancori buruzko txisteak publikatzeagatik' esaldian, printzipioz 'trans' izenondoa soberan dago, ez baitauka zerikusirik albistearen muinarekin. (Beste kontu bat da albistean bertan aipatzea haren kriminalizazio prozesuan transfobia erabili zela).

✗ 'Okerreko gorputzean jai' esaera erabiltzea. Pertsona transexual askok horrelako metaforak erabili dituzte beren bizipen eta sentipenak adierazteko, baina Chrysallisek eta beste hainbat elkartek azpimarratu dutenez, gizartearen begirada binarista dago oker, ez ordea pertsona transen gorputza. Pertsona trans guztiak ez dira beren gorputzarekin deseroso

3 GAIA

sentitzen eta denek ez dute hura hormonon eta kirurgiaren bitartez aldatzeko grina. “Badira zakila duten neskak eta alua duten mutilak”, gogorarazi du Chrysallisek, transexualitatearen eta gorputzaren bizipen positiboago bat plazaratzeko helburuarekin. Aingeru Mayor Chrysallis Euskal Herria elkarteko lehendakariak hizkerarekin lotutako azalpen gehiago eman ditu elkarrizketa interesgarri honetan.

✘ “Sexu-aldaketa” esaera erabiltzea. Kirurgiak ez du pertsonen sexu identitatea aldatzen, anatomia baizik. Aitzole Araneta sexologoaren gomendioa, zer esan nahi dugun zehaztea. Esaterako, “genitalak aldatzeko kirurgia” edo “sexu ezaugarriak aldatzeko prozesua”.

✘ “Transexualek aurkako sexuak izan nahi dutela” esatea. Berdinduren arabera, beren sexu psikologikoari dagokion sexuak ez direla esaten badugu, beren sexu identitatea ukatzen dugu. Hau esatea, aldiz, zuzena da: “transexualek beren benetako sexuarekin, beren sexu psikologikoarekin (sexu identitatea) bat etorri bizi nahi dute”. Sexu identitatea ala genero identitatea? Kontuan izan sexua eta generoa azaltzeko teoria desberdinak daudela. Teoria feministaren tradizioan, sexu biologikoa objetiboa da (arra edo emea) eta generoa gizarte sorkuntza bat da. Queer teoriaren arabera, sexu biologikoa ere gizarte sorkuntza bat da, gure gorputzak ar/eme binarismo hori baino askotarikoagoak baitira. Sexologiak aldiz, ‘sexua’ kategoria bakarra erabiltzen du (sexu identitatea erabiltzen du eta ez genero identitatea), eta horregatik sexu psikologikoaz ari dira Chrysallis elkartekoek edo Berdinduk: sexua buruan eta ez hanken artean dagoela esaten dute.

Eta nola izendatu genero aniztasuna haurtzaroan? “TRANS* exualidades. Acompañamiento, factores de salud y recursos educativos” liburuan, R. Lucas Platero Méndez-ek jaiotzetik esleitutako itxura, rol eta espektatibekin apurtzen duten haur eta gazteekin esamolde zabalak erabiltzea gomendatzen du: esaterako, “genero arauak betetzen ez dituzten pertsonak”, “identitateari buruzko nozio fluidoagoak dituzten gazteak” edo “generoarekiko independenteak direnak”.

Azken ohar bat: agian, ‘zis’, ‘zisgenero’ edo ‘zisexual’ hitzak entzungo zenituen inoiz. Berriako Hiztegiak zisgenero onartzen du:

✘ **Zisgenero.** Bere ezaugarri biologikoengatik jaiotzean ezarri zaion generokoa sentitzen dena. Laburturik, ‘zis’.

Medikuntzak eta psikiatriak lehenago definitu zuten ‘homosexual’ kategoria ‘heterosexual’ kategoria baino; hau da, patologizatu nahi zen sexu orientazioari jarri zioten izena. Transexualekin gauza berbera gertatu zen. Hortaz, nola deitu trans ez direnei? Zisgenero.

3.3. DENOK EZ GARA HETEROSEXUALAK


Maiz entzungo zenuen helduren bat haur bati galdezka, ea ‘nobioa’ daukan (neskatoa bal-

din bada), edo 'nobia' (mutila baldin bada). Genero binarismoak bi identitate ezartzen ditu (gizon/emakume) eta heterosexismoak, berriz, maitatzeko eta desiratzeko aukera bakar bat ezartzen du (beste generoko pertsonak desiratzeko eta maitatzeko). Homosexualitatea onartzen denean, hala ere "desbideratze" edo "salbuespen" gisa hartzen da aukera hori. Aukera "normala" heterosexualitatea delako ideia tinko erroturik dago. Hizkeran ere islatzen da premisa hori. Hona hemen hizkera heterosexista edo heterozentratuaren adibide bat: "nerabeen arteko harreman sexual-afektibo" buruzko ikerketa batek harreman heterosexualak soilik aztertzea.

Sexu aniztasunaren esparruan, hiztegiak motel ari dira eguneratzen. Espainiar estatuan, 2005. urtean legezatu ziren genero berdineko pertsonen arteko ezkontzak. Lehenengo gaian adierazi dugun moduan, Euskaltzaindiak aurten aldatu ditu familiarekin lotutako definizioak: lehen, "senarraren aita emaztearentzat, edo emaztearena senarrarentzat", hurrexe zen aitagarinreba; orain, ordea, horrela jarri dute: "Ezkontideetako baten aita beste ezkontidearentzat". "Errain" hitzaren definizioa ere aldatu dute: lehen, "semearen emaztea" irakur zitekeen, eta orain, berriz, "semearen edo alabaren emaztea".

Bestalde, hizkera aztertzean, bie erreparatzea gomendatzen dizuegu: hala misoginiaren arrastoei (esaterako, 'alua' irain gisa erabiltzea), nola homofobiaren aztarnari (esaterako, 'zoaz popatik hartzera').

DRAEK 'marica' hitzaren hiru adiera biltzen ditu ('afeminado', 'dicho de un hombre: apocado, falta de coraje, pusilánime o medroso', 'dicho de un hombre: homosexual'). Euskaltzaindiaren hiztegiak, berriz, 'marikoi' hitzaren adiera bakarria ematen du: "Gizonezko homosexualak izendatzeko irain hitza". Definizio hori mugatua da, ez baitu adierazten gizon heterosexualak izendatzeko ere erabiltzen dela, maskulinitate eredu hegemonikoaren arauak urratzen dituztenean. 'Maritxu' eta 'emagizon' hitzen definizioetan, aldiz, ez da aipatzen 'marikoi' esateko erak ere badirela.



3 GAIA



Aktibistek, ordea, egitasmoak garatu dituzte sexu aniztasunari lotutako euskarazko lexikoa ezagutzera emateko. 2005. urtean, Aitor Aranak *Gay hiztegia* (Txalaparta) argitaratu zuen, Euskal Herriko Gay Askapenerako Mugimenduaren (EHGAM) enkarguz. 1.300 definizio bildu zituen, batik bat gizon homosexuali loturikoak; hala ere, lesbianekin eta transexualekin lotutako hitzak ere hartu zituen aintzat. Helburua: euskal gay hizkera egon badagoela erakustea. Lana osatzeko, bi iturri nagusi erabili zituen: bibliografikoak, bate-tik, eta ahozkoak, bestetik; azken horiek osatzeko, elkarrizketak egin zizkien hego Euskal Herriko gay euskal hiztunei. “Gauza politak topatu ditut. Adibidez, Azkoitia aldean mutil ilegorri erakargarriei txantxangorri deitzen dietela jakin dut”, azaldu zuen.

Horrela definitzen du ‘maritxua’:

✗ **Maritxu:** *Gizon nahiz mutil homosexuala. Garai batean lumadunei esaten zitzaien gehienbat; gaur egun erabat hedatu dela dirudi, eta luma gabeei ere deitzeko erabiltzen da. Gay-en artean ez da iraingarria, heterosexualen artean oraindik bai.*

Baliabide bibliografikoen artean, Ramon Etxezarretaren *Hiztegi erotikoa* (1983) erabili zuen. Etxezarretak nabarmendu zuen ez zuela beste izenik topatu lesbianentzat. Lesbianak izendatzeko lexiko falta hori *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* ere uzten du agerian. ‘Mari’ hitza emakumezkoak erdeinuz izendatzeko erabiltzen dela azaltzen du hiztegiak eta adibide gehienak feminitate eredutik aldentzen diren emakumeen kontra erabiltzen dira: *mari-gizon, mari-motrailu, mari-mutiko eta mari-mutil*.



Baina ez du adierazten hitz horiek kutsu lesbofoboarekin erabiltzen direnik. DRAEK 'bollera' eta 'tortillera' lesbianak erdeinuz izendatzeko erabiltzen direla onartzen du; euskal hiztegieta, berriz, ez da pareko hitzik onartzen. Elhuyar Hiztegiak ez du aukerarik eskaintzen:



3 GAIA

Hara, zergatik izango ote da hori? Lesbianismoaren onarpenaren isla ote da irain falta hori ala, kontrara, ikusezintasunaren isla? Euskal gay hizkera existitzen bada, euskal lesbiana hizkera ere existituko da, ezta?

Aranak bietakoak sartu zituen bere hiztegian, tradizioetik hartutako hitzak eta hitz berriak: *andrekaria, neskakoa, bilitisen alaba /ahizpa, emakumetxo, aluzalea, motxinjalea, piperropila, potxonzalea, sorgina, ulertua, ulertzailea, lamia, joxe-joxepa, marimutila, mariurkulu, neskamutila eta emarkia*. Amaia Alvarez Uriak erreferentzia horiek bildu zituen, eta Itxaro Bordaren literatur lanetatik ere hartu ditu hainbat hitz: alharia, emekoi, andrakoi, emazteko. "Euskaraz lesbiana edo bollera hitzaren ordain hedaturik ez dagoenez, bi hitz horiek erabili ohi dira, erdal maileguak; baina badaude hainbat herri eta hiritan kalean erabiltzen hasi diren hitz sortu berriak: *soropila* edo *txirlajalea*, esaterako" aipatzen du Alvarez Uriak. LGTB Harrotasunaren kartel batean aurkitu ditugu hitz horiek:

lesbianak bolleras marimutilak
homosexuales piperopitak
tjeretas atsogizonak lesbis
joxe-joxepak marimachos lamiak
camioneras lesbianak bolleras
marimutilak homosexuales
atsogizonak lesbis joxe-joxepak
marimachos lamiak camioneras
lesbianak bolleras marimutilak
homosexuales-atsogizonak
lesbis lamiak camioneras

ekainak
28
junio

lesbiana, gay eta transexualen
askapeneraren martxoaren 28. eguna
día internacional de la liberación
lesbiana, gay y transexual

gauza guztien gainetik
harro
ante todo
orgullosas

valientes konprometituak
sabisfechas askeak visibles gure
buruarekin gustura decididas
agerikoak libres ausartak
comprometidas askeak valientes

MDM
Bilbao
BilNorge
hugga

Rainbow Projeckt webgunearen euskarazko bertsiolan honako azalpen hau topatu dugu 'bollera'ren definizioan:

× **Bollera** (iz. eta adj.) *Gaztelaniaz (eta horren eraginez, euskaraz ere bai) lesbianentzako mespretxuzko terminoa. Gure hizkuntzan mespretxuzko hainbat hitz daude lesbianeiei deitze-ko: mari-mutil, mari-gizon, igurtzimari, tortillera edo talo pala. Hitz horietako bat, "bollera" kasu, lesbiana batzuek berreskuratu eta berriz bereganatu dute, beren nortasuna berresteko.*

Bestetik, *Euskaltzaindiaren hiztegian ez dira "homofobia" eta "homofobo" hitzak agertzen, ez eta 'lesbofobia' eta 'transfobia' ere, jakina. Elhuyar Hiztegian 'homofobia' agertzen da; beste biak ez.*

Maiz "homofobia" hitza erabiltzen da LGTB pertsonen kontrako diskriminazioak orokortzeko, baina erabilera hori ez da egokia. Lesbofobiak eta homofobiak ezaugarri desberdinak dituzte. Transfobia genero identitateari lotuta dago, eta lesbofobia, homofobia eta bifobia, berriz, sexu orientazioarekin. *Berriako Estilo Liburuan kontzeptu horiek guztiak erabiltzen dituzte: "Hizkera homofoborik, lesbofoborik, transfoborik eta bifoborik ez da onartuko".*

"Homosexualak" hitzaren ordez "gay eta lesbianak" idaztea gomendatzen du *Estilo Liburuak*, "izan ere, homosexual hitza bakarrik erabiltzeak ikusezin bihurtzen ditu lesbiana. LGTBI sigla ere erabiliko da (lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualak)".

Berriaren hiztegian LGTBifobia ("lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualen kontrako fobia") agertzen da, baita eta heterosexismoari lotutako hainbat hitz ere:

× heteroarau, heteronormatibitate, heteronormatibo.
Heterosexualitatea bizimodu egoki bakartzat jotzen duen sistema; hari dagokiona.

× heteropatriarkatu.
Feminismoarentzat, gizonak nagusi diren eta heterosexualitatea inposatzen den sistema soziopolitiko.

× heterosexismo, heterosexista.
Heterosexualitatearen nagusitasuna defendatzen duen sistema; haren aldekoa.

3 GAIA

Are gehiago, *Berriaren Estilo Liburuak* konpromisoa hartu du egunkariko edukietan sexualitatearen eta maitasun harremanen aniztasuna islatzeko eta gay, lesbiana, transexual eta bisexualen ikusezintasunari buruz hitz egiteko.

3.4. HITZ BERRI ETA BEHARREZKO BAT: KAPAZITISMOA

Gida hau emakumeen eta sexu eta genero disidenteen inguruan ardaztu dugun arren, garrantzitsua deritzogu hizkeran islatzen diren beste zapalkuntza eta diskriminazio sistemak aipatzeari. Hiztegi instituzionalek ez dute “kapazitismo” hitza onartu (ez euskarazkoek ez gaztelaniazkoek); hala ere, hitz horrek garrantzi handia dauka bestelakotasun funtzionalaren errealitatea aintzat hartzeko.

Berriako hiztegiak definizio hau dakar:

× **Kapazitismo, kapazitista.** *Desgaitasunen bat dutenen kontrako aurrejuzguak eta bereizkeriazko jokabidea; hala jokatzeko duena.*

Desgaitasun, elbarritasun, urritasun, ezgaitasun, ezintasun... Hitz ugari ezagutzen ditugu, baina argi al dauzkagu hitz horien ñabardurak? Zeintzuk dira egokiak eta zeintzuk dira aurrejuzguen ondorio?

LAB sindikatuaren “Oztoporik gabeko komunikaziorako gidaliburu”-ra jo dugu kontzeptuak argitzeko. Ondoren, gidaliburuak dakarren dekalogoaren laburpena:

× “Desgaitasunak dituzten pertsonak” adierazpidea erabiltzea gomendatzen dugu, “desgaitua” terminoa erabili beharrean, hau da, “pertsonak” terminoa jarriko dugu beti aurretik, era horretan azpimarratzen baitugu lehenik eta behin eta batez ere pertsonak direla, eskubide berberekin eta behar berdintsuekin.

× Gomendatzen dugu, batez ere, desgaitasunari gaur egun ematen diogun zentzua gogoan izatea: ez da pertsonari gertatzen zaion zerbait, baizik eta ezaugarri partikularrak dituen pertsona baten eta beraren ingurunearen arteko harremanaren emaitza.

× Zerbitzuen eremu jakin batzuetan erabiltzen diren eta funtzio administratiboa betetzen duten termino espezifikoek dagokienez —adibidez: minusbalotasuna edo ezintasuna—, gomendatzen dugu

ez erabiltzea pertsoneri buruz hitz egiteko, hau da, pertsona horren egoera administratiboaz soilik hitz egiteko erabiltzea. Minusbaliatu, ezindu, elbarri, ezgaitu eta gisa bereko adierazpideak ez dira egokiak, bai konnotazio peioratibo nabariak dituztelako eta bai zentzua ondo islatzen ez dutelako.

× “Dibertsitate funtzional” adierazpidea desgaitasunak dituzten pertsonen egindako proposamen bat da, eta gainera baditu ekarpen kontzeptual interesgarriak. Dena dela, haren hedapena oraindik ere mugatua denez, haren erabilera gomendagarria da desgaitasunari buruzko ikuspegi alternatibo bat azpimarratu nahi dugunean, desgaitasunen gaiak aski ezagunak diren testuinguruetan.

× Desgaitasun motei dagokienez, gomendatzen dugu naturaltasunez erabiltzea, baina baita kontuz, leuntasunez eta begirunez ere pertsona konkretuei buruz hitz egiten dugunean. Etiketa horiek lotura estua izaten dute diagnosi mediko edo psikologikoekin, eta garrantzitsua da konfidentziasuna eta pertsonenganako begirunea kontuan hartzea. Hori bereziki garrantzitsua da estigma nabaria daramaten etiketa batzuen kasuan, hala nola buru-gaixotasunen edo desgaitasun intelektualen kasuan. Horrelakoetan, “pertsonak” hitza aurretik jartzea bereziki garrantzitsua da.

× Alderaketak egin behar izanez gero, ez dugu gomendatzen “normal” terminoa erabiltzea. Hobe da “desgaitasunik gabekoa” adierazpidea erabiltzea.

× “Minusbaliatuentzako” adierazpidea maiz erabiltzen bada ere —adibidez: “minusbaliatuentzako komunak”, “minusbaliatuentzako aparkalekuak”...— egokiagoa eta zuzenagoa izango litzateke komun edo aparkaleku irisgarriak direla esatea.

× Desgaitasuna zuzeneko moduan izendatzeko dugun formarekin zerikusia duten gomendio horiez gain, hizkuntzarekin zerikusia duten baina diskurtso orokorrari buruzkoak diren beste batzuk egin genitzake, hau da, desgaitasunari buruz proiektatzen dugun irudiarekin eta pertsona horiek parte hartzen duten

3 GAIA

egoerak deskribatzeko formarekin zerikusia duten gomendioak. Garrantzitsua da tragedia, sufrimendu edo pairamen irudiak ekartzen dizkiguten adierazpideak saihestea. Adibidez: pertsona batek desgaitasun pairatu edo sufritzen duela esaten badugu, pertsona horren bizitza bete-betea ez dela pentsatzeko joera izango dugu, hau da, pentsatuko dugu pertsona horrek ez duela besteek bezala gozatu, barre edo negar egiten.

Mugimendu sozialetan indarrez hedatu da "aniztasun funtzionala" delako kontzeptua. Konnotazio positiboa badu ere, kontrako iritziak ere piztu ditu, eufemistikoa omen delako. Eginaren Eginez elkarteko kide Igor Nabarrok bere hitzaldietan azaldu ohi duenez, kontzeptu horrek arazo handi bat dakar: ez ditu kapazitismoaren ondorioz baztertuak diren pertsonak izendatzen. Berak bere burua "gizon desgaitu" gisa aurkezten du, gizarte kapazitistak (eta ez bere gorputzak) desgaitzen duela argituz.

Irene Arrarats *Berriako* euskara arduradunari gaiaren inguruan galdetu diogu eta hauxe esan digu:

"Estilo liburuko hiztegioko sarreretan ikusiko duzunez, 'desgaitasun', 'urritasun' eta 'elbarritasun' erabiltzen ditugu, eta, orain dela gutxi, 'araz kanpoko funtzionaltasun' ere erabiltzen hasi gara.

'Aniztasun funtzionala', berriz, norbaitek hala esan badu bakarrik erabiltzen dugu, itzulpen desegokia baita, gure ustez: gaztelaniazko 'diversidad funcional' esamoldeak ez du esan nahi norbaitek funtzio anitz duenik (hori da 'aniztasun funtzionala', funtzio asko izatea, alegia), baizik eta bestela betetzen dituela bere funtzioak. Alde horretatik, uste dugu 'diversidad funcional' itzultzeko modurik egokiena 'bestelakotasun funtzionala' edo 'bestelako gaitasuna(k)' litzatekeela. Korapilo horretatik onik atera nahian hasi gara, hain zuzen, 'araz kanpoko funtzionaltasuna' erabiltzen".

LABek argitaratutako gidaliburuaren bigarren partea biziki gomendatzen dizuegu, gakoak ematen baititu informazioa, komunikazioa eta parte-hartzea irisgarri egiteko. Hizkeraz gain formatu eta espazioen ezaugarriez ohartu behar dugu. Besteak beste, halakoak hartu behar ditugu kontuan, betiere gidaliburuaren arabera: hitzaldietan zeinu hizkuntzako interpreteak erabili, idatzizko materialak braille hizkuntzan ere eskaini, web-guneetan irisgarritasuna zaindu eta Irakurketa Errazeko Testuak egin.

3.5. ARRAZAKERIA HIZKERAN ERE ISLATZEN DA.

2015. urtean ijito herriaren kontseilu eta elkarteek kanpaina bat abiatu zuten; izan ere, RAEk 'gitano' definitzerakoan, 'trapacero' adiera biltzen baitzuen, hots: "Que con astucias, falsedades y mentiras procura engañar a alguien en un asunto". RAEk ohar bat gehitu du, esanez adiera hori iraingarria eta bereizkeriazkoa dela.

Euskaraz, *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* ijitoren adiera bereizkeriazko bati eusten dio:

✗ **3 (Izenondo gisa).** *Lgart. Maltzurra, iruzurtia. Harakin hori ijito xamarra da, eta kontuz. Hauxe ume ijitoa!*

✗ **ijitoheria** iz. *Lgart. Egite makurra, maltzurkeria, iruzurra. Ijitokeria egin zigun. Ijitokeria gabe tratuan.*

Ondoko bideo honetan, gaztelaniaz erabiltzen diren hainbat esaeraren kutsu arrazista azaldu du Moha Gerehou kazetariak, euskaraz onartua dagoen "mulato" hitza barne. Hiztegiak ez dute zehazten kutsu arrazista duenik ez eta hitz egokia 'mestizo' denik ere.



Erabiltzen dugun lexikoaren kutsu ideologikoa kontuan izan behar dugu, batez ere gorroto diskurtsoekin loturik badaude. Adibidez, hortxe daukagu 'jihad' / 'jihadista' hitza (gaztelaniaz, 'yihad'). *Euskaltzaindiako hiztegiak* ez du mailegu hori onartzen, *Berriako Estilo Liburuak*, ordea, halaxe bildu du bere hiztegian: "Musulmanen gerra santua; hartan aritzen dena". Islamofobia eta musulmanen kriminalizazioa pil-pilean dagoen honetan, islamo-

3 GAIA

fobiaren kontrako ekintzaileek behin eta berriro azaldu dute definizio hori ez dela egokia. 'Jihad' terminoak garrantzi handia du erlijio islamikoan: bertute moralarekin loturik dago. Komunitatearen ongizatearen aldeko ahalegina, horixe da hitzaren definizio egokia. Jatorrrian, jihadak autodefentsarako eskubidea ere hartzen du barnean. Change.org atariaren bidez sinadura bilketa bat abiatu zen, RAEren definizioa aldatzeko eskatuz:

"Norekin dator bat RAEk dakarren definizioa, bada, kurioski, benetako islamari buruzko ikerketarik egin ez dutenekin, hots, terroristekin eta helburu politiko eta islamofoboak lortzeko hitza gaizki erabiltzen dutenekin. Bidegabea da islamarekiko eta musulmanon irudia kaltetzen du".

'Etorkin ilegalak' aipatzean, xenofobia indartzen dugu. Lanik eta egoitza baimenik ez edukitzea ez da delitu bat, irregularitasun bat baizik. Hortaz, 'egoera irregularrean dauden etorkinak' edo 'paperik gabeko etorkinak' dira etorkinen kriminalizazioa saihesteko kontzeptu egokiak. Bestalde, gurean hamarkadak egin dituzten pertsonen etorkin edo atzerri-tar deitzeko joeraz pentsatu behar genuke. Hedabideetan pertsonen nazionalitatea nabarmentzen da maiz, eta horrek erreakzio xenofoboak errazten ditu: albistearen protagonista kanpotartzat hartzen baita, eta ez gure bizilaguntzat.

SOS Arrazakeria erakundeak adibidez 'arrazak' kontzeptua ezbaian jarri du. (arrazak bakarra dago, gizakia; diskriminazioa justifikatzeko sortu zen 'arrazak' kontzeptua, baina azalaren kolorea desberdintasun fenotipiko bat da, ez genotipikoa); hala, 'etnia' kontzeptua erabiltzen dugu maiz eufemismo gisa. Beltza ez da etnia bat, ijitoa ordea bai. Lehen begi kolpean ezin diogu pertsona baten etniari igarri: etnia magrebtarraz ari garenean, jakin behar genuke Magreb esparru geografiko bat dela, eta hainbat etnia bizi direla han (esaterako, amazigh edo bereber herria).

Arrazak diskriminazio sistema bat mantentzeko gizarte asmakuntza bat den neurrian, anti-arrazismoaren barruan "arrazalizatutako pertsonak" kontzeptua ari da hedatzen, giza talde menderatzailearena ez bezalako fenotipoa izateagatik baztertzeko dituzten pertsonak izendatzeko. Hau da, kategoria erlatiboa da: Guatemalan mestizo bat talde menderatzailea da eta ez du arrazakeriarik jasango (hor indigenak eta afrikar jatorrikoak direlako baztertuak), baina Europara edo Estatu Batuetara joaten bada, bere azalaren koloreagatik diskriminatuko dute. Igor Nabarrok esan du gizartea dela pertsonak desgaitzen dituen, bada, kasu honetan gizartea arrazista da pertsonak arrazalizatzen dituen.

Atal honi amaiera emateko, hona hemen *Berriako* Estilo Liburuaren atalak ematen dituen gakoak:

Migrazioa eta gutxiengo etnikoak

- ✔ Protagonisten etnia, erlijioa, jatorria eta kultura ez dira aipatuko informazioetan, non eta ez den ezinbestekoa albistea ulertzeko.
- ✔ Migratzaileek ez dute talde homogeenorik osatzen. Beraz, estereotipoak eta topikoak saihestu beharra dago. Hala, esaterako, ezin da identifikatu jatorri, etnia edo erlijio jakin bat jarrera fundamentalistekin, delituarekin edo gizarte arazoekin.
- ✔ Migrazio gaitan ere ezinbestekoa da informazio iturrien aniztasuna bermatzea. Migratzaileek, albisteko protagonista ez ezik, informazio iturri ere izan behar dute.
- ✔ Informazioaren alderdi grafikoak ere zaindu behar da, ideien artean nahi gabeko lotura inplizituak sortzea eragozteko.
- ✔ Oro har mintzatzeko, *migrazio*, *migratzaile* eta *migratu* hitzak erabiliko dira, ikuspuntuaren neutraltasunaren mesedetan.
- ✔ Migratzaile batzuk iheslari edo errefuxiatu dira: gerratik, etengabeko egoera bortitz batetik, giza eskubideen urraketetatik edo giza hondamen batetik ihesi doazenak eta, orobat, jazarriak izateko arriskuan egonik beren herrialdetik alde eginiko guztiak, etnia, erlijioa, nazionalitatea, gizarte talde bateko kidesasuna, sexua,sexualitatea edo ideia politikoak direla kausa.
- ✔ Hizkera xenofoborik ez da onartuko.
- ✘ *Ijitokerian ere maisu da Vaitkus.*

3.6. ANIZTASUNA IRUDIETAN:

Gida honetako aurreko gaitan ikusi dugunez, hizkerak ez ezik ikus-entzunezko lengoaiak eta lengoai grafikoak ere indartu edo iraul dezakete androzentrismoa edo genero desberdintasuna. Gidari amaiera ematen ari garen honetan, are gehiago graduatuko ditugu gure betaurreko moreak. Generoaz harago, zer gorputz agertzen da hedabideetan eta beste komunikazio espazioetan?

Gizon zuria, zisgeneroa, heterosexuala eta desgaitasunik gabekoa da maiz gizakia irudikatzeo erabiltzen den subjektu sasi-unibertsala. Talde dominante horretatik at geratzen garen pertsonon irudia, gehienetan, eduki espezifikoak irudikatzeo baino ez da erabiltzen. Esaterako, instituzio baten kartelean gurpildun aulkian dagoen emakume bat agertzen bada, seguru asko desgaitasunari buruzko kanpaina bat izango da. Irudietan gorputz

3 GAIA

aniztasuna zeharka txertatzea dugu erronka. Eta erronka hori aurrera eramateko badago oztopo bat: irudi bankuen homogeneotasuna.



Familia irudikatzeke eredu bakarra: heterosexuala eta pertsona zuri, argal, ilehori eta ageriko desgaitasunik gabekoez osatua..

Emakumeekin esan dugun bezala, ikusezintasunaz gainera, estereotipatzeko joera dago. Etorkinak, ijitoak, LGTB pertsonak, desgaitasuna duten pertsonak... askotarikoak gara.

Googlen gayak eta lesbianak bilatzen ditugunean, horrelako irudiak topatuko ditugu gehienbat:



Kontua ez da gay gihartsuak eta lesbiana femeninoak ez irudikatzea, baizik eta normatiboak ez diren gorputzak eta genero adierazpenak ere ikusgai egitea. Horixe egiten da Zinegoak zinema jaialdiko karteletan:



Gogoan izango duzue Chrysallis elkartearen kanpaina, hauren gorputz askotarikoak ikusgai egiteko pentsatua:



Desgaitasunari dagokionez, Andaluziako Batzordeak argitaratutako gidaliburu batean bildutako gomendio bat nabarmendu nahi dugu: biktimizazioa indartzen duten irudi melodramatikoak saihestea. Gida horrek aipatzen duenez, gurgildun aulkian dagoen pertsona bat erretratatu edo filmatzeko orduan, garrantzitsua da makurtzea, eta, hala, angelu pikatuak saihestea; gogoan izan angelu pikatuak biktimizazio indartzen duela. Horrez gai-

3 GAIA

nera, gogoan izan askotariko desgaitasunak daudela. Lehen esan dugun moduan, kontuz ibili behar dugu LGTB mugimendua irudikatzeko gayen irudia soilik erabiltzeko joerarekin; bada, desgaitasunarekin berdin, beti gorpildun aulkia erabiltzeko errekurtsua identifikatu behar dugu.

Emakumeen gorputzaren erabilera antzuz hitz egin dugun aurreko gaian. Hipersexualizazioaz gainera, bestelako erabilera antzuzak ere egiten dira. *El Correo*k hiyaba daramaten nesken irudia erabili zuen aurreiritzi xenofoboak indartzen dituen albiste bat janzteko. Hiyaba sinbolo arrotz gisa aurkezten da eta adierazten da ikasle horiek ez direla euskaldunak: hala, xenofobia eta islamofobia indartzen dira.



Euskaldunak anizkoitzak garela adierazten duten irudiak behar ditugu. Horregatik, positiboa iruditzen zaigu Euskal Eskola Publikoaren aurre-matrikulen kanpainan agertzen diren haur guztiak zuriak ez izatea:



EUSKARAREN ERABILERA INKLUSIBOA

Beste gako garrantzitsu bat, aniztasunak "gurutzatzea": LGTB pertsonen artean badago bestelakotasun funtzionala; etorkinen artean badago sexu eta genero aniztasuna... Orokorrean, saiatu behar genuke gorputz normatiboen hegemonia apurtzen eta adin, pisu edo estetika askotarikoak jasotzen.

Aurrekoetan esan bezala, argazki bankuen homogeneousotasunari aurre egiteko bide bat da ilustrazioa. Bukatzeko, hona hemen guri gustatu zaizkigun irudi batzuk:



Ainara Azpiazu Azkoitiko Berdintasun Sailarentzat diseinatu eta ilustratutako egutegia

Ainara Azpiazu ilustratutako Iñaki Zubeldiaren 'Lau Lagun' ipuina, lau neska-mutil koxkorren abentura eta ikaspenak kontatzen dituena

Kalaka komunikazio aholkularitzak Oarsoaldeko jai parekideen alde egindako kanpaina.

Eta, azkenik, *Klitto.eus* aldizkariak lodifobiari buruz egindako monografiko multimedia ere gomendatzen dizuegu:



4

BIBLIOGRAFIA

× **Alberdi, Uxue** (2015).
"Bertsolaritza eta gorputza".
Pikara Magazine.



× **Álvarez Mellado, Elena** (2017):
"Todas, tod@s, todxs, todes: historia de la di-
sidencia gramatical".



× **Alvarez Uria, Amaia** (2003).
"Euskara hizkuntza sexista al da?"



× **Apodaka Ostaikoetxea, Marije**.
"UPV/EHU-n euskararen eta irudien erabi-
lera ez-sexistarako gida".



× **Barquín, Amelia** (2008):
"Euskararen erabilera ez sexista".
Emakunde.



× **Barquín, Amelia** (2014):
"Euskara queerago da gaztelania baino?"



× **Barquín, Amelia** (2014):
"Ni ere generoaren polizia ote naiz?"
Berria.



× **Berriako Estilo Liburua:**



4 GAIA

× **Chrysalis** (2017):

"Nociones básicas sobre transexualidad y el uso del lenguaje"



× **Emakunde** (1988).

"Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago".



× **Eснаоla, Iratxe** (2013):

"Le swing". *Argia*.



× **Euskal Herriko Bilgune Feminista eta Emagin** (2016):

"Izena eta izana ezbaian. Euskal izendegia eta sexuaren araberako bereizketa".



× **FELGTB y Periodistas CCOO**.

"Guía de buenas prácticas para el tratamiento de la diversidad sexual y de género en los medios de comunicación".



× **Frutos Frutos, Isabel**.

"Guía para un uso no discriminatorio del lenguaje (en el entorno de la discapacidad)". *FUNDABEM*.



× **Gipuzkoako Foru Aldundia**.

"Hizkuntzaren erabilera ez sexistarako jarraibideak"



× **Gorbeña, Elena** (2016): "

Eta berdea zer?".

Berria



× **Ikasbil Habe**.

"Gay hiztegia".



× **Irueta Azkune, Onintza** (2016):

"Gurasoen nahia Euskaltzaindiaren Menpe". *Argia*



✕ **Irureta Azkune, Onintza** (2016):
"Eta Katalina Erausok gizon izan nahi bazuen?" *Argia*.



✕ **Jaka Irizar, Aiora** (2013):
"Itzultzaileon kontzientzia feminista... ala matxista?" *31 eskutik bloga*



✕ **Lopez, Axier** (2016):
"Euskaltzaindiak zakila arazo linguistiko bilakatu zuenekoak". *Argia*



✕ **Martinez Rueda, Natxo; Rojo Moltalban, Irantzu** (2009):
"Oztoporik gabeko komunikaziorako gida-liburua". *LAB*.



✕ **Rainbow** azterlan gida.
LGBT terminoen glosarioa.



✕ **Tribuaren Berbak** (2013).
"Euskara sexista al da?" *EITB*.



✕ **Tribuaren Berbak** (2015).
"Euskara dela eta... emakumeek zer diote?" *EITB*.



✕ **Ugarte Maiztegi, Beatriz; Irigoyen Perurena, M^a Jesús; Otaduy Bengoa, M^a Luisa**.
"Hezkidetzan Esku Hartzen Ikastaro osagarria".



✕ **Zikunegi Barandiaran, Izaro** (2014):
"Emakumeak eta bertsoarritza. Gaiak, bertsolarien paperak eta bertsoak genero ikuspuntutik".



✕ **Platero Méndez, R. Lucas** (2014):
"TRANS* exualidades. Acompañamiento, factores de salud y recursos educativos". *Edicions Bellaterra*.



Gida hau Bilbon inprimatu da,
2018ko abuztuan



Dikara

online magazine